# 20

# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

## FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

**DONOSTIA** / SAN SEBASTIÁN / **2023**

**21 - 28** apirila / abril

Human Rights Film Network | Connecting human rights film festivals around the world





# PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

**APIRILAK**
ABRIL

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **21** ostirala viernes | 16:30 | | **CALLE SANTA FE**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **AZ** |
| | 19:30 | ▲ ● | *INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN*<br>**20.000 ESPECIES DE ABEJAS** | **VEA** |
| | 22:30 | | **BLANQUITA** | **VEA** |
| **22** larunbata sábado | 16:30 | EUS | **METRONOM** | **VEA** |
| | 16:30 | ▲ | **FILM LABURRAK / CORTOMETRAJES** | **AZ** |
| | 19:00 | ▲ | **THE LOST SOULS OF SYRIA** | **VEA** |
| | 22:30 | | **NO BEARS** | **VEA** |
| **23** igandea domingo | 12:00 | EUS | *HAURRENTZAKO ZINEMA / CINE INFANTIL*<br>**TXIMINOEN IZARRA**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **VEA** |
| | 16:30 | EUS | **INTERDIT AUX CHIENS ET AUX ITALIENS** | **VEA** |
| | 19:00 | ▲ | **LOOK WHAT YOU MADE ME DO** | **VEA** |
| **24** astelehena lunes | 16:30 | EUS | **MARIUPOLIS 2** | **VEA** |
| | 19:00 | ▲ | **KARPETA URDINAK** | **VEA** |
| **25** asteartea martes | 16:30 | EUS | **THE GOLDEN THREAD** | **VEA** |
| | 19:00 | ▲ | **TETUÁN** | **VEA** |
| **26** asteazkena miércoles | 16:30 | | **VICTIM** | **VEA** |
| | 19:00 | ▲ ● | **CABEZA Y CORAZÓN** | **VEA** |
| | 19:00 | | **THE MARCH ON ROME** | **TBK** |
| **27** osteguna jueves | 16:30 | | **LES HARKIS** | **VEA** |
| | 19:00 | ▲ | **LAS BUENAS COMPAÑÍAS** | **VEA** |
| | 19:00 | EUS | **EVERYTHING WILL BE OK** | **TBK** |
| **28** ostirala viernes | 17:00 | ▲ | **NADIE ESTÁ LEJOS**<br>*librea gonbidapenarekin / gratis con invitación* | **VEA** |
| | 19:00 | | **WANIBIK: THE PEOPLE WHO LIVE IN FRONT OF THEIR LAND** | **TBK** |
| | 20:00 | EUS ▲ | *BUKAERA / CLAUSURA*<br>**TOI NON PLUS TU N'AS RIEN VU** | **VEA** |

Sarrerak / Entradas: **5 €**
Tabakalera: **4 €**

Gonbidapenak / Invitaciones: Victoria Eugenia Antzokia, Antzoki Zaharra & www.zinemaetagizaeskubideak.eus

EUS Euskarazko saioak / Sesiones en euskera

▲ Pertsona gorrentzat azpititulu egokituak dituzten filmak eta zeinu hizkuntza zerbitzua duten solasaldiak
Sesiones con subtitulación accesible para personas sordas y coloquios con intérprete de lengua de signos

● Saioak audiodeskripzioarekin / Sesiones con audiodescripción (**AudescMobile**)

**VEA** Victoria Eugenia Antzokia
**AZ** Antzoki Zaharra / *Teatro Principal*
**TBK** Tabakalera

# AURKEZPENA

2003ko martxoaren 14an Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia sortu zen, Antzoki Zaharrean egindako proiekzio batekin. Hogei urte geroago, berriro bueltatu da, udaberri guztietan bezala, donostiarrentzat munduari leiho bat irekitzeko prest. Gure inguruan gertatzen diren eta gertatu beharko ez luketen historiak kontatzeko, eta planeta osoan egunero izaten diren giza eskubideen urraketak salatzeko, gure inguruan zer gertatzen den jakiteko. Konpromiso mezu batekin, eta itxaropen mezu batekin beti.

Egun hauetan, abagune haren 20 urte betetzen dira. Ordutik, ezin konta ahala film proiektatu dira, hainbat historia kontatu dira, mundu osoko pertsona gailenei ahotsa eman zaie, eta ikusleekin partekatu dituzte beren esperientziak. Zinemaldia salaketa tresna bihurtzen saiatu da, zinemaren bidez ez ezik, antzerkiaren, musikaren, pinturaren, argazkigintzaren... eta protagonistekin izandako harreman zuzenaren bidez ere.

Oraingo honetan, Zinemaldiko kartelak irisgarritasunari egiten dio aipamen, bere ikurrari hasiera-hasieratik. Urtez urte, gero eta gehiago izan dira zinema saioak azpititulu irisgarriekin eta audio-deskribapenekin, gero eta gehiago izan daitezen Zinemaldira etorri eta bertan parte hartu ahal izango duten ikusleak.

Izan ere, gure ustez zinema eta gainerako arteak oso tresna baliotsuak izan daitezke bizi garen mundua hobeto ezagutzeko eta aldatzen saiatzeko. Zinemak kontatu, eraldatu, hurbildu eta mundu bidezkoago eta solidarioago bat posible dela pentsarazten digulako.

Zorionak 20 urte hauengatik.

# PRESENTACIÓN

El 14 de marzo de 2003 nacía el Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián con una proyección en el Teatro Principal. Veinte años después vuelve como cada primavera dispuesto a abrir una ventana al mundo a la ciudadanía donostiarra. Para contar historias que suceden en nuestro entorno y no deberían, para denunciar las vulneraciones de los derechos humanos que se producen cada día en todo el planeta, para conocer lo que sucede aldededor. Con un mensaje de compromiso y siempre de esperanza.

Se cumplen estos días 20 años de aquel momento. Desde entonces se han proyectado decenas de películas, se han contado historias, se ha dado la voz a personalidades de todo el mundo que han compartido sus experiencias con las espectadoras y espectadores. El Festival ha intentado convertirse en una herramienta de denuncia, no solo a través del cine sino también mediante el teatro, la música, la pintura, la fotografía... y el contacto directo con los y las protagonistas de las historias.

En esta ocasión el cartel del Festival hace referencia a la accesibilidad, bandera del certamen desde sus inicios. Año a año han ido aumentando las sesiones de cine con subtitulación accesible y con audiodescripción en un intento de que cada vez más espectadoras y espectadores puedan acudir y participar del Festival.

Porque pensamos que el cine y las demás artes pueden ser herramientas muy valiosas para conocer mejor el mundo en el que vivimos y para intentar cambiarlo. Porque el cine nos cuenta, nos transforma, nos acerca y nos hace pensar que es posible un mundo más justo y solidario.

Felicidades por estos 20 años.

**Eneko Goia Laso**
Donostiako Alkatea




# CARMEN CASTILLO

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAREN SARIA

**Carmen Castillo Echeverría** (Santiago Txilekoa, 1945) 1974ko urriaren 26an kanporatu zuen bere herrialdetik Pinochet jeneralaren erregimenak, 1973ko irailaren 11n estatu-kolpearen ondoren ezarriak. Estatu-kolpeak Unidad Popularren gobernu legitimoa kendu zuen, Salvador Allende presidente zuena. Hiru aste lehenago, urriaren 5ean, DINAk (polizia sekretu beldurgarriak) Santa Fe kaleko etxea eraso zuen; Santiagoko hegoaldeko komuna batean zegoen kokatua, eta bertan bizi zen Castillo klandestinitatean, bere lagun eta garai hartan MIReko (Movimiento de Izquierda Revolucionario) buruzagi goren Miguel Enríquezekin. Biak ziren diktaduraren aurkako Erresistentzia miristako kide. Enríquez bere bizitza eta bere lagun Carmenena defendatzen hil zen; Carmen larriki zauritu zuten haurdun zegoela.

Carmen Castillok Cambridgen hasi zuen bere erbestealdi luzea. Txileko Erresistentziarako laguntza bila munduan zehar alderrai ibili ondoren, 1976aren amaieran Parisen ezarri zen, eta bertan jarraitzen du bizitzen, nahiz eta 1988an, demokrazia berrezartzean Pinochetek plebiszitoa galdu zuenetik, gero eta egonaldi luzeagoak egiten dituen Txilen. Dena den, ez da inoiz behin betiko bueltatu.

Hogei bat dokumental zuzendu ditu. Horien artean Txileri, diktadurari eta bere erbestealdiari eskainitakoak nabarmentzen dira, besteak beste **La Flaca Alejandra** (1994), **El país de mi padre** (2004) eta **Calle Santa Fe** (2007). 2015ean **On est vivants** (2015) aurkeztu zuen. *Un día de octubre en Santiago*, *Ligne de fuite* eta *Santiago-París*. *El vuelo de la memoria* idatzi ditu; azkena aipatutakoa, bere ama Mónica Echeverríarekin batera.

## PREMIO FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

**Carmen Castillo Echeverría** (Santiago de Chile, 1945) fue expulsada de su país el 26 de octubre de 1974 por el régimen del general Pinochet instaurado tras el golpe de Estado del 11 de septiembre de 1973 que derrocó al Gobierno legítimo de la Unidad Popular presidido por Salvador Allende. Tres semanas antes, el 5 de octubre, la DINA (la terrible policía secreta) había asaltado la casa de la calle Santa Fe, ubicada en una comuna al sur de Santiago, donde Castillo vivía en clandestinidad con su compañero Miguel Enríquez, entonces máximo dirigente del MIR (Movimiento de Izquierda Revolucionario). Ambos formaban parte de la Resistencia mirista contra la dictadura. Enríquez murió defendiendo su propia vida y la de su compañera, que resultó gravemente herida estando embarazada.

Carmen Castillo comenzó su largo exilio en Cambridge. Después de errar por el mundo en busca de ayudas para la Resistencia chilena, a finales de 1976 se instaló en París, donde sigue residiendo, aunque con la restitución de la democracia desde que Pinochet perdió el plebiscito de 1988, ha ido retornando a Chile durante periodos cada vez más largos. El retorno, sin embargo, nunca ha sido definitivo.

Ha dirigido una veintena de documentales, entre los que destacan los que ha dedicado a hablar de Chile, de la dictadura y de su exilio, como **La Flaca Alejandra** (1994), **El país de mi padre** (2004) o **Calle Santa Fe** (2007). En 2015 presentó **On est vivants** (2015). Ha escrito *Un día de octubre en Santiago*, *Ligne de fuite* y *Santiago-París. El vuelo de la memoria* (coescrito con su madre, Mónica Echeverría).

ostirala / viernes > apirilak **21** abril / **16:30**
Antzoki Zaharra / Teatro Principal

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

## CALLE SANTA FE (2007)

Carmen Castillo. Txile-Frantzia-Belgika / Chile-Francia-Bélgica. 163 min

*gaztelania*

1974ko urriaren 5ean, Santa Fe kalean, Txileko Santiagoko aldirietan, Carmen Castillo zauritu egin zuten, eta bere laguna, Miguel Enríquez, MIReko (Movimiento de Izquierda Revolucionaria) burua, borrokan hil zen. **Calle Santa Fe** emakume honek ekiten dion bidaia bat da, bere historian, herrialdearen historian eta MIRen barrena.

5 de octubre de 1974, en la calle Santa Fe, en los suburbios de Santiago de Chile, Carmen Castillo es herida y su compañero, Miguel Enríquez, jefe del MIR (Movimiento de Izquierda Revolucionaria), muere en combate. **Calle Santa Fe** es el viaje que emprende esta mujer por su historia, por la historia del país y del MIR.



ostirala / viernes > apirilak **21** abril / **19:30**
Victoria Eugenia Antzokia

**INAUGURAZIOA /** INAUGURACIÓN

## **20.000 ESPECIES DE ABEJAS** (2023)

Estibaliz Urresola Solaguren. Espainia / España. 129 min *euskara, gaztelania* *gaztelania*

Cocó, zortzi urtekoa, ez da moldatzen besteek berarengandik espero dutenaren aurrean, eta ez du ulertzen zergatik. Bere inguruko guztiek Aitor deitzen diote behin eta berriz, baina ez du bere burua izen horretan ezagutzen. Amak, Anek, oporrak aprobetxatuko ditu hiru seme-alabekin bere amaren etxera joateko. Bertan bizi dira Lita ama eta Lourdes izeba, erleen hazkuntzan murgildua. Beren bizitzak aldatuko dituen uda honek beren zalantzei eta beldurrei aurre egitera behartuko ditu hiru belaunaldi oso desberdinetako emakume horiek.

Cocó, de ocho años, no encaja en las expectativas del resto y no entiende por qué. Todos a su alrededor insisten en llamarle Aitor pero no se reconoce en ese nombre ni en la mirada de los demás. Su madre Ane, sumida en una crisis profesional y sentimental, aprovechará las vacaciones para viajar con sus tres hijos a la casa materna, donde reside su madre Lita y su tía Lourdes, estrechamente ligada a la cría de abejas y la producción de miel. Este verano que cambiará sus vidas obligará a estas mujeres de tres generaciones muy distintas a enfrentarse a sus dudas y temores. Y sobre todo, a Ane a ser por fin honesta consigo misma.

### IDENTITATEARI ETA ERLEEI BURUZ

**20.000 especies de abejas** filmak goretsi egiten du munduan izateko eta bizitzeko moduen aniztasuna, kontuan izanik erleek bermatzen dutela naturako biodibertsitatea. Oso iradokitzailea iruditzen zitzaidan familia erlauntzaren irudia, non banako bakoitzak funtzio espezifiko bat duen taldearen barruan, baina, hala ere, erlauntza, edo familia, osatzen duten banakoen batura baino askoz ere gehiago da. Trans identitateak giza aniztasunaren beste adierazpen bat dira, eta filmaren testuinguruan trans haurtzaroak eragiten du familia barruan gertatzen den aldaketa. Identitatearen gaiari modu zabal batean heldu nahi nion, eta bereziki nola eragiten diguten familiaren baitako harremanek nor garen izendatzeko bidaia misteriotsu horretan. Norberaren identitatea barneko bizipen pertsonal soil bat da edo kanpoko begiradak eragindakoa?

Gainera, erleek eta erlauntzek zeregin sozial eta espiritual garrantzitsua bete dute euskal bizitza tradizionalean, eta kultura hori ere islatu nahi nuen. Lurraldea bitan banatzen duen muga batek bereizten du kultura hori eta, aldi berean, hainbat hizkuntza biltzen ditu identitateen aniztasun horren ikur gisa. Muga hori, banaketa geografiko bat ez ezik, hesi bat da ere, geure buruaz eta aurrean ditugun pertsonez ditugun iritzi jakin batzuk gainditzeko zailtasunez hitz egiten duena.

### SOBRE LA IDENTIDAD Y LAS ABEJAS

**20.000 especies de abejas** es un canto a la diversidad de formas de ser y habitar el mundo porque las abejas son las garantes de la biodiversidad en la naturaleza. Me resultaba muy evocadora la imagen de la colmena familiar donde cada individuo tiene una función específica dentro del grupo, pero, sin embargo, la colmena o la familia son mucho más que la suma de sus individuos. Las identidades trans son otra expresión más de la diversidad humana y en el contexto de la película es la cuestión de la infancia trans la que detona el cambio en la familia. Me interesaba abordar la cuestión de la identidad de una manera amplia y en especial sobre cómo las relaciones en el seno familiar nos afectan en ese viaje misterioso de nombrar quiénes somos ¿Es la identidad propia tan solo una vivencia íntima y personal o está afectada por la mirada externa?

Además, las abejas y las colmenas han jugado un papel social y espiritual importante en la vida tradicional vasca, cuya cultura también quería reflejar. Una cultura dividida por una frontera que separa el territorio en dos y que congrega a su vez distintas lenguas como seña de esa diversidad identitaria. Esa frontera no representa solamente una separación geográfica sino también una barrera o límite que habla de las dificultades que tenemos para superar ciertas creencias de nosotros mismos y de las personas que tenemos delante nuestro.

**Estibaliz Urresola Solaguren**

ostirala / viernes > apirilak **21** abril / **22:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## BLANQUITA (2022)

Fernando Guzzoni
Txile-Mexiko-Luxenburgo-Frantzia-Polonia / Chile-México-Luxemburgo-Francia-Polonia. 99 min

*gaztelania*

Blanca, 18 urteko harrera-etxe bateko egoiliarra, lekuko nagusia da eskandalu batean: politikari eta gizon aberatsen festa sexualak, non haurrak dauden tartean. Hala ere, zenbat eta galdera gehiago egin, orduan eta lausoago ikusten da zein den Blancaren papera eskandalu horretan. Pederastiari eta haurren prostituzioari lotutako kasu erreal batean oinarritua, enpresariak eta politikariak inplikatu zituena eta Txileko gizartea hunkituta utzi zuena XXI. mendearen hasieran.

Blanca, una residente de un hogar de acogida de 18 años, es la testigo clave en un escándalo que involucra a niños, políticos y hombres ricos que participan en fiestas sexuales. Sin embargo, cuantas más preguntas se hacen, menos claro se vuelve exactamente cuál es el papel de Blanca en el escándalo. Basada en un caso real de pederastia y prostitución infantil que implicó a empresarios y políticos y que conmocionó a la sociedad chilena a comienzos del siglo XXI.

## BOTERE USTELAK ETA ADINGABEEN PROSTITUZIOA

20 urte bete dira Txilen ustelkeriaren eta adingabeen sexu-esplotazioaren eskandalu handienetako bat piztu zenetik. 2003an atera zen argitara, Spiniak kasua izenarekin –Claudio Spiniak enpresariaren izena hartuta–. Enpresari hau sare baten buru zen, harrera-zentroetan eta auzo behartsuetan egoera ahulean zeuden haur eta nerabeak errekrutatu eta prostituitu egiten zituena gizon boteretsuekin festetan. Haien artean hainbat politikari zeuden inplikatuta bezero gisa. Izan ere, telebistako elkarrizketa batean neska adingabe batek salatu zuenez, Txileko parlamentari baten abusuak jasan zituen. Gerora, politikari hura kondenatua izan ez bazen ere, neskak lekukotza faltsutu zuelako, eskandalu hark biziki hunkitu zuen iritzi publikoa.

Zoritxarrez, Spiniak kasua ez da bakarra. AEBn, Jeffrey Epstein aberatsa, Donald Trumpen eta Andres printzearen laguna, atxilotu egin zuten 2008an eta 2019an, neskekin trafikatzea eta sexu-abusuak egitea egotzita. Gainera, ordaindu egiten zieten leku behartsuetan beste neska nerabe batzuk bila zitzaten, esklabo sexualak izateko erregetzako kideentzat, politikarientzat, enpresarientzat...

Italian, oihartzun handia izan zuen Silvio Berlusconi buruzagiaren aurkako Ruby auziak; adingabeekin zituen orgiengatik eta guateque pribatuengatik salatua. Horietako batean, Txekiako lehen ministro ohiari, Mirek Topolaneki, argazkiak atera zizkioten biluzik.

Adingabeen sexu-abusuen kasu horiek eta beste batzuek, ia herrialde guztietan gertatzen direnek, egiturazko krisi global bat adierazten dute eta, horren aurrean, premiazkoa da legeriaren, politiken eta ekintza-protokoloen bidez erantzutea abusu horien eta botere politiko eta ekonomikoen zigorgabetasunaren aurka.

## PODERES CORRUPTOS Y PROSTITUCIÓN DE MENORES

Se cumplen 20 años desde que estallara en Chile uno de los mayores escándalos de corrupción y explotación sexual de menores. Salió a la luz en 2003 bautizado como caso Spiniak, tomando el nombre del empresario Claudio Spiniak. Este comandaba una red que reclutaba en centros de acogida y barrios desfavorecidos niños, niñas y adolescentes en situación de vulnerabilidad, a quienes prostituía en fiestas con hombres poderosos. Como clientes, se vieron implicados diferentes políticos. De hecho, una menor denunció en una entrevista televisada haber sido abusada por un parlamentario chileno. Aunque posteriormente no se pudo condenar al político porque ella incurrió en falsedad testimonial, el escándalo impactó a la opinión pública.

Desafortunadamente el caso Spiniak no es aislado. En EEUU, el multimillonario Jeffrey Epstein, amigo de Donald Trump y del príncipe Andrés, fue arrestado en 2008 y 2019 acusado de traficar con niñas y abusar sexualmente de ellas. También les pagaba para que buscaran a otras adolescentes en entornos desfavorecidos, para ser esclavas sexuales de miembros de la realeza, políticos, empresarios...

En Italia fue sonado el caso Ruby contra el dirigente Silvio Berlusconi, denunciado por sus orgías con menores y por sus guateques privados, en uno de los cuales se fotografió desnudo al ex primer ministro checo Mirek Topolanek.

Esos y otros casos de abusos sexuales de menores, que ocurren en prácticamente todos los países, denotan una crisis estructural global, ante la que urge responder con legislación, políticas y protocolos de acción contra tales abusos y contra la impunidad de los poderes políticos y económicos.

larunbata / sábado > apirilak **22** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## METRONOM (2022)

Alexandru Belc
Errumania-Frantzia / Rumanía-Francia. 102 min

*errumaniera* *euskara, ingelesa*

Bukarest, 1972. Anak 17 urte ditu eta maitasuna eta askatasuna ditu amets. Gau batean, lagunarteko festa batean, Metronomi gutun bat idaztea erabakiko dute, Free Europe irratiak Errumanian ezkutuan transmititzen duen musika-saioari. Une horretan iritsiko da Securitate-a, Ceaușescuren polizia sekretu beldurgarria.

Bucarest, 1972. Ana tiene 17 años y sueña con el amor y con la libertad. Una noche, en una fiesta con sus amigas y amigos, deciden escribir una carta a Metronom, el programa musical que Radio Free Europe transmite clandestinamente en Rumanía. En ese momento llega la Securitate, la temible policía secreta de Ceaușescu.

## SECURITATE: KONTROL SOZIALA ETA ERREPRESIOA ERRUMANIAN

1960ko hamarkadan, Nicolae Ceaușescuren erregimenak inoiz izan den polizia politiko ezagun eta eraginkorrenetako bat izan zuen Errumanian: Securitate. Urteetan zehar, herritarren errepresio eta kontrol sozialerako makineria diseinatzen eta hobetzen aritu zen, Anaia Handi sofistikatu bat bilakatzeraino.

Bere kontrolpean, errumaniarrek ezin zuten herrialdetik irten, etengabeko zaintzapean zeuden. Mikrofonoak eta entzute telefonikoak erabiltzen ziren. Horrez gain, beldurra, zentsura eta errepresioa nagusi ziren erregimen bat garatu zen, herritar guztiak behartzen zituena informatzera eta bizilagunak, lagunak eta senideak salatzera. Sekuritatek, “saria eta zigorra” metodoari esker, salaketa eta espioitzako armada ikaragarri bat errekrutatu zuen. Milioi erdi informatzaile baino gehiago biltzea lortu zuen, eta hamarkadetan zehar infiltratu zen etxeetan eta erregimenarentzat arriskurik txikiena izan zitekeen errumaniar ororen elkarrizketa intimoenetan. Lehen eta bigarren hezkuntzako azken urteetako ikasleak ere errekrutatzen ziren.

1999an, Sekuritateren Artxiboak Aztertzeko Kontseilua (CNSAS) sortu zen, eta herritarren eskura jarri zituen ezin konta ahala espediente, hauek barnean direla: ikerketak eta prozesu penalak, gizarteko sektore guztien artetik erreklutatutako salatariek eskainitako entzuketak eta informazioak, eta zaintzapean zeuden pertsonen gai intimoenak ere. Artxiboak, zalantzarik gabe, behin betiko frogatzen du Europako historia hurbilean gizartea kontrolatzeko aurrera eramandako ariketa handienetako bat.

## LA SECURITATE: CONTROL SOCIAL Y REPRESIÓN EN RUMANÍA

En la década de los 60, el régimen de Nicolae Ceaușescu contó en Rumanía con una de las policías políticas más conocidas y eficaces que han existido: la Securitate. Durante años se dedicó a diseñar y perfeccionar una maquinaria de represión y control social de la ciudadanía, convirtiéndose en un sofisticado Gran Hermano.

Bajo su control, los ciudadanos rumanos no podían salir del país y estaban sometidos a vigilancia constante. Se utilizaban micrófonos y escuchas telefónicas; y además se desarrolló un régimen de miedo, censura y represión, mediante el que todos los ciudadanos estaban obligados a informar y delatar a vecinos, amigos, familiares. La Securitate reclutó, gracias al método de “premio y castigo”, un impresionante ejército de espionaje y delación. Este llegó a superar el medio millón de informadores y se infiltró durante décadas en las casas y las conversaciones más íntimas de todo rumano que representara el menor peligro para el régimen. Se reclutaba incluso alumnado de los últimos años de la escuela primaria y de secundaria.

En 1999 se creó el Consejo para el Estudio de los Archivos de la Securitate (CNSAS), que puso a disposición de la ciudadanía toneladas de expedientes que incluyen investigaciones y procesos penales, escuchas e informaciones ofrecidas por chivatos reclutados entre todos los sectores sociales y niveles de intimidad respecto de las personas vigiladas. El archivo es, sin duda, la prueba definitiva de uno de los mayores ejercicios de control social ejercido por un gobierno en la historia reciente de Europa.

larunbata / sábado > apirilak **22** abril / **16:30**
Antzoki Zaharra / Teatro Principal

# FILM LABURRAK
# CORTOMETRAJES (161 min)

## A. O. C. (2022)

Samy Sidali. Frantzia / Francia. 18 min

*frantsesa* *gaztelania*



Asmo onez betetako administrazio batek aholkatuta, Latefak eta bere bi semeek, Walidek eta Ptissamek, beren izenak frantsestu dituzte frantziar nazionalitatea eskuratzeko unean.

Aconsejados por una administración llena de buenas intenciones, Latefa y sus dos hijos, Walid y Ptissam, afrancesan sus nombres en el momento de adquirir la nacionalidad francesa.

## Belle River (2022)

Guillaume Fournier, Samuel Matteau, Yannick Nolin.
Kanada (Quebec)-AEB / Canadá (Quebec)-EEUU. 11 min

*frantsesa, ingelesa* *gaztelania*



Film labur hau Louisianari eta bertako biztanle baketsuei buruzkoa da, bai bat bai bestea desagertzeko zorian krisi klimatikoaren ondorioz.

Este es un cortometraje sobre Luisiana y sus pacíficos habitantes, ambos amenazados de extinción debido a la crisis climática.

## Blanquet of Words (A Piece of Peace) (2023)

Carlos Zerpa, Beltrán Pérez. Venezuela-Frantzia-Kolonbia / Venezuela-Francia-Colombia. 5 min

*gaztelania*



Kevin ume bat da eta Martarekin bizi da, nekazaria, eta noizean behin joaten da bere ama Fabiola, gerrilaria, bisitatzera. Baina paramilitar batzuk hirian bat-batean sartzen direnean, Marta hil eta alde egitera eta familiaren benetako esanahia bilatzera behartzen dute Kevin.

Kevin es un niño que vive con Marta, una campesina, y que de vez en cuando visita a su madre Fabiola, guerrillera. Hasta que unos paramilitares irrumpen en la ciudad, matando a Marta y obligando a Kevin a irse y buscar el verdadero significado de la familia.

## Concordia (2022)

Diego Véliz. Txile / Chile. 8 min

*ingelesa* *gaztelania*



Pampak ez zuen mugarik ezagutzen, eta ez zuen lerro baten agerraldiaren, akordio diplomatikoen berri. **Concordia** Peru eta Txile arteko mugari buruzko saiakera bat da, interneten aurkitutako materialekin sortua.

Pampa que no conocía límites, la aparición de una línea, acuerdos diplomáticos. **Concordia** es un ensayo sobre la frontera peruano-chilena creado con materiales encontrados en internet.

## **Kelin Tash / Bride Stone** (2023)

Guzel Duishenkulova. Kirgizistan / Kirguistán. 16 min

*kirgiz* *gaztelania*



Kirgizistango herri batean harri bat dago, emakume baten itxura duena. Herrian diotenez, senarrarekin eta aitaginarrebarekin sesioan aritu zen neska gazte batek etxetik ihes egin omen zuen. Aitaginarrebak emakumeari madarikazio bat bota, eta harri bihurtu omen zen.

En un pueblo de Kirguistán hay una piedra que parece una mujer. Según las creencias locales, una joven que había discutido con su marido y su suegro se escapa de casa. El suegro echa una maldición a la mujer, que supuestamente se convierte en piedra.

## **Over mij / About Me** (2022)

Ali Asgari. Herbehereak / Países Bajos. 15 min

*nederlandera* *gaztelania*



Fatima gazteak bere halabeharra alda dezakeen sekretu bat du gordeta. Mediku batekin fidatu behar du tradizio kulturalaren eta etika medikoaren artean erabaki zail bat hartzeko.

La joven Fatima guarda un secreto que podría cambiar su destino. Ha de confiar en una doctora que debe tomar una decisión difícil entre la tradición cultural y la ética médica.

## **Maldita. A Love Song to Sarajevo** (2022)

Raúl de la Fuente, Amaia Remírez. Espainia / España. 27 min

*gaztelania, ingelesa, bosniera, katalana* *gaztelania*



Bere Jainkoa Maitasuna da. Bere aberria Lurra. Bere generoa? Gizakia. **Maldita**n, Božo Vrećok, Balkanetako artistarik iraultzaileenak, goretsi egiten ditu bizitza, superazioa eta bi hiriren arteko maitasun istorioa: Sarajevo eta Bartzelona.

Su Dios es el Amor. Su patria la Tierra. ¿Su género? Humano. En **Maldita** Božo Vrećo, el más revolucionario de los artistas de los Balcanes, le canta a la vida, a la superación y a la historia de amor entre dos ciudades, Sarajevo y Barcelona.

## **Pas amoureux** (2022)

Eugénie Bouquet. Suitza / Suiza. 4 min

*frantsesa* *gaztelania*



Bi pertsona Genevako Parc des Bastionseko banku batean eserita daude. Horietako bat, Judith, sexu-langilea da, eta bezero desgaituekin duen esperientziari buruz hitz egiten du. Bestea ni naiz, bera elkarrizketatzen eta grabatzen.

Dos personas están sentadas en un banco del Parc des Bastions de Ginebra. Una de ellas, Judith, es una trabajadora sexual que habla sobre su experiencia con clientes con discapacidad. La otra soy yo, que la estoy entrevistando y grabando.

## **Salvation Has No Name** (2022)

Joseph Wallace. Frantzia-Txekiar Errepublika-Erresuma Batua (Ingalaterra) / Francia-República Checa-Reino Unido (Inglaterra). 17 min

*ingelesa* *gaztelania*



Pailazoen *troupe* bat apaiz bati eta emakume errefuxiatu bati buruzko istorio bat antzezteko biltzen da, baina, kontu hori modu trakets batean kontatu ahala, fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak lausotzen hasten dira.

Una *troupe* de payasos se reúne para interpretar una historia sobre un sacerdote y una refugiada, pero a medida que relatan el cuento torpemente, los límites entre la ficción y la realidad comienzan a desdibujarse.

## **La Valise rouge** (2022)

Cyrus Neshvad. Luxenburgo / Luxemburgo. 18 min

*farsi, frantsesa, ingelesa* *gaztelania*



16 urteko neska irandar bat, belo batez estalia, ikaratuta dago Luxenburgoko aireportutik irten behar duenean.

A una joven iraní de 16 años que va cubierta con un velo le aterra salir del aeropuerto de Luxemburgo.

## **Si me querei, irse** (2023)

Sofía Muñoz. Espainia / España. 9 min

*gaztelania*



Igandero bezala, paella bat prestatzen ari da Juana, familiaz inguratuta. Bere senar Peperen erretiroaren berri izatean, ospakizun hau ere zama astun bat izango da.

Juana prepara una paella como cada domingo rodeada de su familia. La noticia de la jubilación de su marido Pepe convierte una celebración más en una pesada carga.

## **Yellow** (2023)

Elham Ehsas. Afganistan-Erresuma Batua (Ingalaterra) / Afganistán-Reino Unido (Inglaterra). 13 min

*dariera* *gaztelania*



Talibanek kontrolatutako Afganistanen, Kabulgo burka-denda batean sartzen da Laili, bere aurreneko belo integrala erosteko eta etorkizun berri bati aurre egiteko.

En el Afganistán controlado por los talibanes, Laili entra en una tienda de burkas de Kabul para comprar su primer velo integral y enfrentarse a un nuevo futuro.

Human Rights Film Network

Connecting human rights film festivals around the world

# film

**is a powerful medium**
It can touch and **inspire audiences:** those who can **make a difference.**

A growing numbers of film festivals dedicated to the promotion of human rights are organised around the world. They cooperate in the Human Rights Film Network.

**Connect?**

**humanrightsfilmnetwork.org**

larunbata / sábado > apirilak **22** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



## THE LOST SOULS OF SYRIA (2022)

Stéphane Malterre, Garance Le Caisne. Frantzia-Alemania / Francia-Alemania. 99 min

*ingelesa, frantsesa, arabiera, gaztelania* *gaztelania*

Atxilotu eta hil arte torturatu zituzten zibilen 27.000 argazki lapurtu zituen Siriako erregimeneko artxibo sekretuetatik Caesar gako-izena duen militar batek. 2014an argitaratu ziren, baina ordutik nazioarteko justizia ezinean dabil Siriako Gobernua auzipetzeko. Kasua ahaztuta geratuko dela dirudienez gero, biktimen senideak eta aktibistak, Caesar bera eta Almudena Bernabeu abokatu espainiarra besteak beste, egia eta justizia bilatzen saiatzen ari dira Europa osoko hainbat auzitegitan. Bost urteko ikerketa eta borrokaren ondoren lortu dute azkenean Siriako heriotzaren makinako goi-karguak lehen aldiz auzitara eramatea.

27.000 fotos de civiles detenidos y torturados hasta la muerte fueron robadas de los archivos secretos del régimen sirio por parte de un militar de nombre clave Caesar. Se hicieron públicas en 2014. Pero desde entonces la justicia internacional se muestra impotente para procesar al Gobierno sirio. Como el caso parece condenado al olvido, familiares de las víctimas y activistas como el propio Caesar o la abogada española Almudena Bernabeu tratan de buscar la verdad y la justicia en diversos tribunales de toda Europa. Cinco años de investigación y lucha consiguen llevar por primera vez a juicio a altos cargos de la máquina de la muerte siria.

## JUSTIZIA UNIBERTSALA SIRIAN DESAGERTUTAKOENTZAT

Siriako erregimenera, beste estatu arabiar batzuetara bezala, Udaberri Arabiarreko herri matxinadak iritsi ziren. Protestak 2011ko martxoan hasi ziren Bashar al Asaden erregimenari azkena emateko eskatuz. Horrek gatazka zibila ekarri zuen, NBEren arabera, 400.000 hildako baino gehiago utzi dituena eta herritarren erdiak herrialdetik ihes egitera behartu dituena.

Protesta horiek hasi zirenetik, Siriako gobernuaren errepresioa gupidagabea izan da. Siriako Giza Eskubideen Behatokiak egindako kalkuluen arabera, 88.000 zibil hil dira Siriako kartzeletan torturak jasan ondoren, eta dagoeneko 205.300 pertsona desagertu dira.

Txinaren eta Errusiaren betoak galarazi egin du Sirian egindako krimenak epaituko dituen nazioarteko auzitegi penal bat eratzea. Hala ere, desagertuen senideek lortu dute herrialde batzuetan Siriako erregimenaren arduradunen aurkako prozesuak irekitzea. Alemanian, adibidez, Siriako erregimenaren kolaboratzaileen aurkako hiru prozesu daude zabalik gizateriaren aurkako delituengatik, justizia unibertsalaren printzipioa aplikatuz. Horri esker, herrialde batek beste herrialde batean egindako delituak epai ditzake, krimenaren egilearen edo biktimaren nazionalitatea auzia jarri duen herrialdekoa izan ala ez.

Espainiako Estatuan, Botere Judizialaren Lege Organikoan jasotako jurisdikzio unibertsalaren printzipio hori mugatu egin zen 2014ko erreforma batean. Orain, beharrezkoa da biktimetako edo biktimarioetako bat espainiarra izatea eta, horren ondorioz, kereilak artxibatu ahal izan dira, besteak beste Siriako erregimenaren aurka Guernica 37 abokatu taldeak aurkeztutakoa eta rohingyen genozidioaren aurkako auzia.

## JUSTICIA UNIVERSAL PARA LOS DESAPARECIDOS EN SIRIA

Al régimen sirio, como a otros estados árabes, llegaron las revueltas populares de la Primavera Árabe. Las protestas, que en marzo de 2011 comenzaron reclamando el fin del régimen de Bashar al Asad, desembocaron en un conflicto civil que, según ONU, ha dejado más de 400.000 muertos y ha obligado a huir del país a la mitad de la población.

Desde el comienzo de estas protestas, la represión del Gobierno sirio ha sido implacable. El Observatorio Sirio para los Derechos Humanos estima que 88.000 civiles han muerto en las cárceles sirias tras sufrir torturas, y se suman a las 205.300 personas registradas como desaparecidas.

El veto de China y Rusia ha impedido crear un tribunal penal internacional que juzgue los crímenes cometidos en Siria. Sin embargo, los familiares de desaparecidos han conseguido que en algunos países se abran procesos contra responsables del régimen sirio. En Alemania, por ejemplo, hay tres procesos abiertos contra colaboradores del régimen sirio por delitos de lesa humanidad, en aplicación del principio de justicia universal, que permite a un país enjuiciar delitos perpetrados en otro país, independientemente de que la nacionalidad del autor del crimen o la de la víctima sea la del país demandante.

En el Estado español, este principio de jurisdicción universal recogido en la Ley Orgánica del Poder Judicial fue restringido en una reforma de 2014. Ahora se requiere que alguna de las víctimas o victimarios sea de nacionalidad española, lo cual ha provocado que se hayan podido archivar querellas como la presentada contra el régimen sirio por el equipo de abogados Guernica 37 o la causa contra el genocidio de los rohingyas.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Gema Gutiérrez:** Guernica 37 Group-eko abokatu elkartua / *abogada asociada de Guernica 37 Group*
**Ane Irazabal:** nazioarteko informazioan espezializatutako kazetaria / *periodista especializada en información internacional*

larunbata / sábado > apirilak **22** abril / **22:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## NO BEARS

(*Khers nist*, 2022)

Jafar Panahi. Iran / Irán. 107 min

*farsi* *gaztelania*

Bi maitasun-istorio paralelo dira, non bikoteak gaizki irtengo diren oztopo ezkutu eta saihestezinengatik, sineskeriaren indarragatik eta boterearen mekanikagatik. Pelikula hau existitze hutsa miraria bat da ia. Jafar Panahik klandestinitatean filmatua, atxilotua eta 6 urteko kartzela zigorra –duela bi hilabetetik bere etxean betetzen ari dena– ezarri baino lehentxeago, **No Bears** maisulan bat da zinemagile irandar honen filmografian. Bere artearekin, gizartearekin eta adierazpen askatasunarekin artistak hartua duen konpromisoaren monumentu bat.

Dos historias de amor paralelas en las que las parejas se ven frustradas por obstáculos ocultos e inevitables, la fuerza de la superstición y la mecánica del poder. La sola existencia de esta película es casi un milagro. Rodada en la clandestinidad por Jafar Panahi, poco antes de ser detenido y sentenciado a una pena de cárcel de 6 años (que desde hace un par de meses cumple en su casa), **No Bears** es una obra mayor dentro de la filmografía del maestro iraní. Un monumento al compromiso del artista con su arte, la sociedad y la libertad de expresión.

## IRAN: FUNDAMENTALISMO ISLAMISTAREN AURKAKO ERRESISTENTZIAK

Irango Errepublika Islamikoak eta bere erregimen teokratiko diktatorialak 44 urte bete berri dituzte agintean. Zehazki, 1979an, iraultza islamiar batek, talde erlijioso ultrakontserbadoreek eta Jomeini aiatolak antolatua, azkena eman zien Iran monarkiko, mendebaldar, liberal baten hamarkadei. Iraultza haren garaipenak herrialdea askatasunik gabeko nazio batera itzultzea ekarri zuen, eskubiderik gabeko nazio batera, batez ere emakumeentzat; hango polizia gai da beloa ondo jantzita ez eramateagatik neska bat hiltzeko.

Izan ere, hala gertatu zitzaion 2022ko irailean Mahsa Aminiri, aiatolek ezarritako janzkera kodea urratzeagatik atxilotua. Torturek eragindako haren heriotzak protesta jendetsuak piztu zituen herrialdean, erregimenak milaka atxiloketarekin eta heriotza zigorrarekin zapalduak.

Errepresio hori ez da oraingoa; etengabea izan da azken mende erdi honetan. Adierazpen askatasuna defendatzeagatik espetxeratutako Jafar Panahi zinemagilea bezalako artisten bizitza eta lanek egiaztatzen dute hori.

Izan ere, Gobernuak ahots disidenteak isilarazi nahi baditu ere, erregimenaren eta gizartearen arteko aldea gero eta handiagoa da, eta ez da duela 44 urteko bera. Iran bezalako herrialde gazte batean (bertako populazioak 32 urte ditu batez beste, Munduko Bankuaren arabera), gazteak eta, bereziki, emakumeak matxinatzen ari dira, eta ez bakarrik hirietan, baita landa-eremuetan ere, non ohitura eta lege atabikoek dirauten, itunpeko ezkontzak besteak beste. Erresistentziaren ahotsak dira, Errepublika Islamikoari bizkarra ematen diotenak, gero eta beldur gutxiago dieten “hartz” edo mehatxu fundamentalista horiei aurre eginez.

## IRÁN: RESISTENCIAS FRENTE AL FUNDAMENTALISMO ISLAMISTA

La República Islámica de Irán y su régimen teocrático dictatorial acaban de cumplir 44 años en el poder. Concretamente fue en 1979 cuando una revolución islámica, orquestada por grupos religiosos ultraconservadores y por el ayatolá Jomeini, puso fin a décadas de una Irán monárquica, occidentalizada, liberal. La victoria de aquella revolución supuso la reversión del país en una nación sin libertad, sin derechos sobre todo para las mujeres, con una policía de la moral capaz de asesinar a una chica por no llevar bien puesto el velo.

De hecho, así le ocurrió en septiembre de 2022 a Mahsa Amini, arrestada por contravenir el código de vestimenta impuesto por los ayatolás. Su muerte por torturas fue el detonante de protestas multitudinarias en el país, reprimidas por el régimen con miles de detenciones, e incluso penas de muerte, a manifestantes.

Esta represión no es de ahora; ha sido constante en este último medio siglo. Lo acreditan las vidas y obras de artistas como el cineasta Jafar Panahi, encarcelado por defender la libertad de expresión.

Y es que, por mucho que el Gobierno busque acallar las voces disidentes, cada vez es mayor la brecha entre el régimen y la sociedad, que ya no es la misma que hace 44 años. En un país joven como es Irán (su población tiene 32 años de media, según el Banco Mundial), la juventud y particularmente las mujeres se están rebelando, y no solo en las ciudades sino también en el ámbito rural, donde perviven costumbres y leyes atávicas como los matrimonios concertados. Son voces resistentes que dan la espalda a la República Islámica, enfrentándose a “esos osos” o amenazas fundamentalistas a las que están dejando de temer.

igandea / domingo > apirilak **23** abril / **12:00**
Victoria Eugenia Antzokia

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación

**haurrentzako zinema**
cine infantil

ESERLEKU URDINA
BUTACA AZUL

GAUTENA
Gipuzkoako Autismo Elkartea
Asociación Guipuzcoana de Autismo



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

## **TXIMINOEN IZARRA** (*Apstjärnan*, 2021)

Linda Hambäck. Suedia-Norvegia-Danimarka / Suecia-Noruega-Dinamarca. 75 min *euskara*

Jonna txikia oso alaia da eta izugarrizko gogoa du norbaitek adopzioan har dezan. Edozeinek adoptatuta ere, bera pozik egongo da, baldin eta bera bakarrik maite badu. Bere ama izan daitekeen bat umezurztegira tarranta batean iristen denean, zur eta lur geratzen da autoko atea irekitzen denean. Gorila bat! Jonna ez dago ziur primate erraldoi eta baldar batekin joan nahi ote duen. Baina neskak eta gorilak berehala ahazten dituzte bereizten dituzten desberdintasun fisikoak. Harreman polit hori bizirik irtengo ote da biak banandu nahian dabilen udal funtzionario baten amarruetatik?

La pequeña Jonna es muy jovial y tiene muchísimas ganas de que la adopten. La adopte quien la adopte, ella estará contenta, siempre y cuando la quiera solo a ella. Cuando una posible madre llega al orfanato en una tartana, se queda estupefacta cuando se abre la puerta del coche. ¡Una gorila! Jonna no está segura de si quiere irse con un primate gigante y desmañado. Pero niña y gorila enseguida olvidan las diferencias físicas que las separan. ¿Sobrevivirá esta bonita relación a las artimañas de un funcionario municipal que está empeñado en separarlas?









igandea / domingo > apirilak **23** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia


© Les Films du Tambour de Soie

## INTERDIT AUX CHIENS ET AUX ITALIENS (2022)

Alain Ughetto. Frantzia-Italia-Belgika-Suitza-Portugal / Francia-Italia-Bélgica-Suiza-Portugal. 70 min

*frantsesa, italiera* *euskara*

XX. mendearen hasiera, Ughettera, Italiako iparraldea, Ughetto familiaren etxea. Eskualdean bizitzea oso zail bihurtu da, eta Ughettoek beste leku batean beren egoera hobetzea dute amets. Kondairak dioenez, Luigi Ughettok Alpeak zeharkatu zituen Frantzian bizitza berri bat hasteko, eta horrek betiko aldatu zuen familiaren ahalbeharra. Bere bilobak bidaia bat egiten du denboran zehar haren historia gogoratzeko.

Principios del siglo XX, Ughettera, norte de Italia, hogar de la familia Ughetto. Vivir en la región se ha puesto muy difícil y los Ughetto sueñan con mejorar su situación en otro lugar. La leyenda cuenta que Luigi Ughetto cruzó los Alpes para empezar una nueva vida en Francia, cambiando el destino de la familia para siempre. Su nieto viaja en el tiempo para recordar su historia.

### ITALIARREN MIGRAZIOA XIX. ETA XX. MENDEETAN

Europak, gaur egun, beste kontinente batzuetako errefuxiatuak hartzen ditu (630.000 2021ean) baita migratzaile ekonomikoak ere. Hala ere, amnesia apur batekin hartzen ditu, ahaztuta historian zehar europarrak izan direla une askotan beste kontinente batzuetara emigratu dutenak. Hala, hedapen kolonizatzaileetan, edo Estatu Batuak edo Australia bezalako nazioen jatorrian aurkitzen ditugu Europak emigratzeko izandako bokazioaren adibideak. Gerretan, faxismoetan edo diktaduretan ere, milioika europar erbesteratu behar izan ziren beste herrialde batzuetara.

Italiako kasuak ematen du horren berri. XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen hasierara arte, milioika italiarrek (batez ere landa-eremuetakoak) Frantziara, Belgikara, Suitzara... emigratu zuten, pobreziak, jabetzan lurrik ez izateak eta epidemiek behartuta. Ondoren, faxismoa boterera iritsi zenean, 1922an, emigrazio antifaxista sortu zen, erregimenetik ihesi zebilena. Italia suntsituta utzi zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, italiarren migrazioa eskulan masiboa, merkea eta esplotatua izan zen berreraikitze prozesuan zeuden Europako beste herrialde batzuentzat obra publikoetan, siderurgietan edo meategietan lan egiteko. Guztira, 1861 eta 1985 urte bitartean, 29 milioi italiarrek emigratu zuten beste herrialde batzuetara.

Migrazioaren ibilbide horren analisian, zenbait azterlanek adierazten dute italiar asko migratzaile gisa mespretxuz eta xenofobiaz tratatuak izan zirela. Suitzako tabernetako 1960ko hamarkadako kartel haiek, "*Ez da ez txakurrik ez italiarrik onartzen*" ziotenek, gaurko kartelak gogorarazten dizkigute, "*Pisua alokatzen da. Ez da immigranterik hartzen*" diotenak.

### LA MIGRACIÓN ITALIANA DE LOS SIGLOS XIX Y XX

Europa recibe, hoy en día, personas refugiadas de otros continentes (630.000 en 2021). También recibe personas migrantes económicas. Lo hace, sin embargo, con cierta amnesia, olvidando que a lo largo de la historia han sido las personas europeas las que han emigrado a otros continentes, en muchos momentos. Encontramos ejemplos de esta vocación emigratoria europea en las expansiones colonizadoras, o en el origen de naciones como Estados Unidos o Australia. También en los momentos de guerras, fascismos o dictaduras, millones de personas europeas se vieron obligadas a exiliarse en otros países.

El caso italiano da cuenta de ello. Desde finales del siglo XIX hasta principios del XX, millones de italianos (sobre todo de zonas rurales) emigraron a Francia, Bélgica, Suiza..., obligados por la pobreza, la falta de tierras propias y las epidemias. Posteriormente, la llegada del fascismo al poder en 1922 generó la emigración antifascista que escapaba del régimen. Después de la Segunda Guerra Mundial, que dejó Italia destruida, la migración italiana sirvió a otros países europeos en proceso de reconstrucción como mano de obra masiva, barata y explotada, para trabajar en obras públicas, siderurgias o minas. En total, entre 1861 y 1985, 29 millones de italianos e italianas emigraron a otros países.

En el análisis de este recorrido migratorio, diferentes estudios apuntan el desprecio y xenofobia con que muchas personas italianas fueron tratadas como migrantes. Aquellos carteles en los bares suizos de los años sesenta que rezaban *"No se permiten perros ni italianos"* recuerdan a los carteles de hoy: *"Se alquila piso. Absténganse inmigrantes"*.

igandea / domingo > apirilak **23** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia

## LOOK WHAT YOU MADE ME DO (2022)

Coco Schrijber. Herbehereak / Paises Bajos. 83 min

*ingelesa, italiera, finlandiera, nederlandera*
*gaztelania*



*"Amari esan nionean haur bat parkean jotzen ari zitzaidala, zera erantzun zidan: gustuko zaituelako da hori"*. Horrela hasten da dokumental hau, Artemisia Gentileschiren *Judit Holofernesi lepo egiten* koadroa erreferentziatzat hartuta, beren bikotekideen tratu txarretik eta abusutik bizirik irten ziren hiru emakumeren historia kontatzen duena. Laura finlandiar gazteak labana bat erabili zuen, Rachel herbeheretarrak pistola bat, Rosalba italiarrak pozoia jarri zuen albondiga batzuetan.

*"Cuando le dije a mi madre que un niño me estaba pegando en el parque, me contestó: eso es porque le gustas"*. Así comienza este documental que, tomando como referencia el cuadro de Artemisia Gentileschi *Judit decapitando a Holofernes,* cuenta la historia de tres mujeres que sobrevivieron al maltrato y al abuso por parte de sus parejas, a las que acabaron matando. La joven finlandesa Laura utilizó un cuchillo, la neerlandesa Rachel una pistola, la italiana Rosalba puso veneno en unas albóndigas.

### ETXEKO INDARKERIA INTIMOA

*Etxeko indarkeria intimoa* terminoa, besteak beste, indarkeriazko ekintza hauek izendatzeko erabiltzen da: bikotearen edo bikote ohiaren eremuan emakume batek gizon baten aurka egindako ekintzak, gizona hiltzea dakartenak. 2021ean, 6 izan ziren Espainiako Estatuan. Bat bera ere ez zen gertatu Euskadin. Termino horrek ez ditu barne hartzen gizon batek emakume baten aurka egindako indarkeriazko ekintzak, azken hauek aparte zenbatzen baitira, *genero indarkeria* gisa sailkatuta.

Halako ekintzak erregistratzen dituen Estatuko Behatokiaren arabera, emakumeek eragindako indarkeriazko kasu horien ehuneko handi bat *erantzun-indarkeria* dira, gizona zenez gero aurretik emakumearenganako indarkeriazko gertakarien eragilea. Erantzun-indarkeria hori gizonak emakumeari tratu txarrak ematen dizkionean gertatzen bada, epaiketa batean "defentsa legitimoaren salbuesle" gisa alega daiteke. *Indarkeria diferituaren* beste ekintza batzuk daude, non emakumeak erasoaldiaz bestelako une batean hiltzen duen erasotzailea, baina denboran zehar behin eta berriz errepikatzen diren erasoen aurkako defentsa-ekintza gisa.

Emakume horietako askok *Tratu txarrak jasandako emakumearen sindromea* dute, edo babesgabetasun ikasia, eta horrek eragotzi egiten die tratu txarrak eman dizkien pertsona abandonatzea edo laguntza bilatzea –epaiketetan defentsa legitimoa ezesteko erabilitako argudioa, irizten baita beste aukera batzuk zeudela erasotzailea hiltzea ez direnak eta ez zuela aukera horien alde egin–. Horregatik, sektore feministen proposamena hauxe da, sindrome hori defentsa legitimoaren lege-esparru baten eraikuntzan txertatzea, egokia izango dena genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.

2022ko hirugarren hiruhilekoan, 47.955 emakumek jasan zuten genero-indarkeria Espainiako Estatuan, horietatik 3.327k Euskadin. 2022an, 49 emakume hil ziren genero indarkeriagatik.

### VIOLENCIA DOMÉSTICA ÍNTIMA

*Violencia doméstica íntima* es el término usado para designar, entre otros, los actos de violencia de una mujer contra un hombre en el ámbito de la pareja o expareja, en los cuales el hombre muere. En 2021, fueron 6 en el Estado español. Ninguno ocurrió en Euskadi. Dicho término no incluye los actos de violencia ejercidos por parte de un hombre contra una mujer, ya que estos últimos se contabilizan aparte, etiquetados como *violencia de género*.

Según el Observatorio Estatal que los registra, un porcentaje apreciable de dichos casos de violencia ejercida por mujeres es *violencia de respuesta*, en tanto que existían episodios previos de violencia del varón hacia la mujer. Si esta violencia de respuesta ocurre durante un episodio de maltrato por parte del hombre, en un juicio podría alegarse como "eximente de legítima defensa". Existen otros actos de *violencia diferida*, en los que la mujer acaba con la vida de su agresor en un momento distinto al de la agresión, pero como acto defensivo frente a continuas agresiones repetidas en el tiempo.

Muchas de estas mujeres sufren el llamado *Síndrome de la mujer maltratada* o indefensión aprendida, que les impide abandonar al maltratador o buscar ayuda (argumento usado en los juicios para desestimar la legítima defensa, al entender que había alternativas distintas a la de acabar con la vida del agresor por las que no se decantaron). Por ello, sectores feministas proponen incorporar este síndrome a la construcción de un marco legal de legítima defensa adecuado para las mujeres víctimas de violencia de género.

En el tercer trimestre de 2022, 47.955 mujeres sufrieron violencia de género en el Estado español, 3.327 de ellas en Euskadi. En 2022, 49 mujeres perdieron la vida por violencia de género.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Sonia Vaccaro:** Psikologian lizentziatua, Biktimologian eta Genero Indarkerian aditua / *licenciada en Psicología, experta en Victimología y Violencia de Género*
**Laia Serra**: abokatu penalista, genero-berdintasunean, giza eskubideetan eta diskriminazioan aditua / *abogada penalista, experta en igualdad de género, derechos humanos y discriminación*

astelehena / lunes > apirilak **24** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## MARIUPOLIS 2 (2022)

Mantas Kvedaravičius. Lituania-Frantzia-Alemania / Lituania-Francia-Alemania. 105 min

*errusiera* *euskara, ingelesa*

2022an Mantas Kvedaravičius zinemagile lituaniarra Mariupolera (Ukraina) itzuli zen, 2015ean filmatu zuen jendearekin berriz elkartzeko. Hil ondoren, bere ekoizleek eta kolaboratzaileek indar guztia jarri dute bere lanarekin jarraitzeko eta proiektu hau bere ikuspegiari jarraituz amaitzeko. Zinemagile gisa, han gertatzen ari denaren testigantza utzi nahi zuen Mantasek, hedabideen eta politikarien zaratatik urrun. Indar eta sentsibilitate handiz, dokumental honek bizitzak bonben azpian nola jarraitzen duen kontatzen du, eta tragedia eta itxaropena erdi bana konbinatzen dituzten irudiak erakusten ditu.

En 2022, el cineasta lituano Mantas Kvedaravičius volvió a Mariúpol, Ucrania, para reencontrarse con la gente a la que había filmado en 2015. Tras su muerte, sus productores y colaboradores han puesto toda su energía para continuar con su trabajo y acabar este proyecto siguiendo su visión. Mantas quería testificar como cineasta lo que allí está sucediendo, alejado del ruido de los medios de comunicación y los políticos. Con mucha fuerza y sensibilidad, este documental cuenta cómo la vida continúa bajo las bombas y muestra imágenes que combinan a partes iguales tragedia y esperanza.

### MARIUPOL: UKRAINAKO GERRAREN SINBOLO

Gerra bakoitzak bere hiria du. Gatazka bakoitza leku bati lotuta dago, izuari eta zentzugabekeriari lotutako espazio bati. Hiroshima, Alepo, Mostar... Lurralde asko ezagutzen ditugu gerra bezalako zerbaitengatik. Mariupol da zerrendan sartu den azkena.

Azov itsasoaren kostaldean dago Mariupol eta leku estrategiko bat izatearen pribilegio tristea du, lotu egiten baititu 2014an Errusiak anexionatu zuen Krimeako eremua eta Donetsk eta Luhansk eskualdeak. 2022ko otsailean Ukraina inbaditu eta egun gutxira, tropa errusiarrek 80 egun baino gehiagoz setiatu zuten hiria. Aste luze haietan, herritarrak jazarri eta hil egin zituzten aire erasoetan, artilleria bonbardaketetan eta koheteak eta misilak haien gainean jaurtitzean.

Enfrentamendu hilgarri haien ondorioz milaka pertsona ebakuatu eta hil ziren (horien artean, Mantas Kvedaravičius zinemagilea, sarraskia filmatzen hil zena). Nazio Batuen arabera 1.348 zibil hil dira, 300 Mariupoleko Antzoki Dramatikoaren bonbardaketan. Ehunka pertsonak erabiltzen zuten leku hori babesleku gisa. Beste iturri batzuek, agian zehatzagoak, hildako zibilak 35.000ra irits daitezkeela irizten dute.

Enfrentamenduen ondoren, hiria ia erabat suntsituta geratu zen. Bizitegi-eraikinen %90 eta etxebizitza partikularren %60 suntsitu ziren. Gainera, handia da nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideei buruzko nazioarteko legeriaren urraketa larrien susmoa. Horrek guztiak gerraren sinbolo bihurtu du Mariupol, gerra guztiak bezala, suntsiketak eta erresistentziak markatua.

### MARIÚPOL: SÍMBOLO DE LA GUERRA EN UCRANIA

Cada guerra tiene su ciudad. Cada conflicto está unido a un lugar, a un espacio asociado al terror y la sinrazón. Hiroshima, Alepo, Mostar... Muchos son los territorios que conocemos por algo tan terrible como una guerra. Mariúpol es la última en sumarse a esta lista.

Situada en la costa del mar de Azov, Mariúpol tiene el triste privilegio de ser considerada un lugar estratégico, ya que une la zona de Crimea que Rusia se anexionó en 2014 con las regiones de Donetsk y Luhansk. Pocos días después de la invasión de Ucrania en febrero de 2022, las tropas rusas sitiaron la ciudad durante más de 80 días. Durante estas largas semanas, acosaron y asesinaron a sus ciudadanos y ciudadanas mediante ataques aéreos, bombardeos de artillería y lanzamiento de cohetes y misiles.

Estos mortíferos enfrentamientos tuvieron como resultado miles de personas evacuadas y muertas (entre ellas, el cineasta Mantas Kvedaravičius, que murió rodando la masacre). Según Naciones Unidas, se ha verificado la muerte de 1.348 civiles, 300 en el bombardeo del Teatro Dramático de Mariúpol, lugar que cientos de personas usaban como refugio. Otras fuentes, quizás más exactas, estiman que los civiles muertos podrían llegar a 35.000.

Tras los enfrentamientos, la ciudad quedó prácticamente arrasada. Un 90% de los edificios residenciales y un 60% de los domicilios particulares fueron destruidos. Además, la sospecha de la existencia de violaciones graves del derecho humanitario internacional y de la legislación internacional de derechos humanos es alta. Todo ello ha convertido a Mariúpol en símbolo de una guerra marcada, como todas las guerras, por la devastación y la resistencia.

astelehena / lunes > apirilak **24** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

## **KARPETA URDINAK** (2022)

Ander Iriarte. Espainia-Frantzia / España-Francia. 113 min

*euskara, gaztelania* *gaztelania*

Anderrek, beste askok bezala, aitak komisarian jasan zuena tortura izan zela susmatzen du. Bere ustea argitu nahian, Eusko Jaurlaritzak Bake eta Bizikidetza Planaren barruan egindako *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014* ezagutuko du. Ikerketa honek argitaratzen dituen emaitzekin ikaratuta, proiektuan parte hartu zuten mediku, psiokologo, psikiatra eta abokatuekin elkartuko da. Haiek erakutsiko diote "tortura psikologikoa", "Istanbulgo Protokoloa" edo "hurbilketa estatistikoa" bezalako kontzeptuak, ipar globaleko torturaren errealitatea ezagutaraziz.

Ander, al igual que otras muchas personas, sospecha que lo que realmente sufrió su padre en aquella comisaría fue tortura. A fin de esclarecer sus sospechas, conocerá el *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*, elaborado por el Gobierno Vasco en el marco del Plan de Paz y Convivencia. Horrorizado por los resultados publicados en esta investigación, se reencontrará con las personas dedicadas a la medicina, la psicología, la psiquiatría y la abogacía que participaron en el proyecto, quienes le enseñan conceptos como "tortura psicológica", "Protocolo de Estambul" o "aproximación estadística" y le muestran la realidad de la tortura en el norte global.

## TORTURA EUSKAL HERRIAN

Torturaren salaketa nire bizitzaren parte izan den arren, -Kriminologiaren Euskal Institutuaren txostenaren aurkezpen-ekitaldira joan nintzenean, begitik zikina atera nuen. Torturaren dimentsioa, eragina, metodologia zientifikoa eta batez ere itzalean irauteko zuen gaitasunak, nire amesgaiztorik okerrenak gainditzen zituen. Dokumentalean ikusleari bidaian lagunduko dion familiako gertaera batetik abiatzen naizen arren, azken sei urte hauetako obsesioa, euskal kasua erabiliz tortura modernoaren dimentsioa bere osotasunean azaltzea izan da.

Zuzendarioi film bakoitza munduko gauzarik garrantzitsuena iruditzen bazaigu ere, egia esan, zinemagile gisa gutxitan izaten duzu gizarteari zerbait esanguratsua emateko ahalmena, eta nire ustez, hori da honako kasua. Etorkizunari begira, gustatuko litzaidake dokumentala hemen jasandakoaren erreferente gisa gogoratzea, gertatu dena zabaltzeko motorra izatea eta horrek, mugimendu sozial batera eramatea, konpontzeko eta ez errepikatzeko neurriak hartzera bultzatuz.

## TORTURA EN EL PAÍS VASCO

Pese a que la denuncia de la tortura ha estado presente en mi entorno, cuando acudí al acto de presentación del informe del Instituto Vasco de Criminología se me cayó la venda. La incidencia, dimensión, metodología científica y, lo más importante, la capacidad de la tortura para permanecer en la sombra superaba mis peores pesadillas. En el documental parto de un suceso familiar, ya que ayudará al espectador a acompañarme en el viaje, pero durante estos seis años nuestra obsesión ha sido la de explicar la dimensión de la tortura moderna en su totalidad, usando el caso vasco.

Aunque a los directores cada película nos parece lo más importante del mundo, lo cierto es que como cineasta pocas veces tienes la oportunidad de hacer algo que tenga el potencial de aportar algo significativo a la sociedad, y creo que este es el caso. Mirando al futuro, lo cierto es que me gustaría que recordaran esta película como la película referente de lo sucedido aquí, que sea un motor para la divulgación de lo que ha sucedido y eso lleve a un movimiento social para la reparación y medidas de no repetición.

**Ander Iriarte**

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Ander Iriarte:** filmaren zuzendaria / *director de la película*
**Mauro Palma:** legelaria, espetxeak kontrolatzeko Antigone elkartearen sortzailea eta Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Batzordeko presidente ohia / *jurista creador de la asociación Antigone para control de las prisiones y expresidente del Comité para la Prevención de la Tortura del Consejo de Europa*
**Olivier Peter:** Torturaren aurkako Munduko Erakundeko diruzaina eta Genevako Abokatuen Batzordeko ordezko kidea / *tesorero de la Organización Mundial contra la Tortura y miembro suplente del Comité de Abogados de Ginebra*
**Ixone Fernández:** gizarte hezitzailea, torturaren biktima / *educadora social, víctima de tortura*

asteartea / martes > apirilak **25** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia



## THE GOLDEN THREAD (2022)

Nishtha Jain. India-Bosnia/Herzegovina-Herbehereak-Norvegia-Erresuma Batua / India-Bosnia/Herzegovina-Países Bajos-Noruega-Reino Unido. 91 min

*hindi, bengalera* *euskara, ingelesa*

Goren aldian, Bengalan, milioika pertsonak lan egiten zuten jute-fabriketan, iraultza industrialaz geroztik ia aldatu ez diren horietan. Makinak duela ehun urteko berberak dira oraindik. Estatuaren laguntzek plastikoaren alternatiba jasangarri hori lantzen eta ekoizten jarraitzen dute, baina bere etorkizuna ez da ziurra. Nishta Jainek jutea prestatzeko kate osoa jarraitzen du, ibaiaren ertzean biltzen denetik fabrikan prozesatzen den arte.

En su momento de mayor apogeo, millones de personas trabajaban en Bengala en las fábricas de yute, que apenas han cambiado desde la revolución industrial. Las máquinas siguen siendo las mismas que hace cien años. Las ayudas estatales mantienen en marcha el cultivo y producción de esta alternativa sostenible al plástico, pero su futuro es incierto. Nishtha Jain sigue la cadena completa de preparación del yute, desde su recogida a la orilla del río hasta su procesamiento en la fábrica.

### JUTEA: URRE-ZUNTZA

Kutsadura plastikoaren eta ingurumen-kezkaren egungo testuinguruan, mendebaldean jutearen landarearekiko interesa sortu da. Jutea zuntz natural bat da, erresistentea, % 100 biodegradagarria eta birziklagarria. Hala, gaur egun plastikoarekin fabrikatzen ditugun hainbat produktu, zakuak, sokak, ehunak... zuntz horrekin fabrikatu eta ekologikoa izango litzateke.

Munduko jute-ekoizpenaren % 90 Ganges ibaiaren deltatik dator, India eta Bangladeshen arteko lur-eremu zabal eta emankorretik. Zuntzaren ekoizpenak tradizio handia du han. Industrializazioaren hasieratik, milaka eta milaka langilek aurkitu dute enplegua eta bizimodua industria horren inguruan. Hala ere, eta zoritxarrez, bere eguneroko errutina ia ez da aldatu urteetan (jute-errotek ia berdin funtzionatzen dute industria-iraultzaz geroztik). “Urre-zuntz” preziatua (koloreagatik eta sortzen duen aberastasunagatik horrela deitua) ateratzeko baldintza gogorrak betikotzen joan dira; eta, hobetu beharrean, abusu eta esplotazio egoerak babesten jarraitu dute sarritan. Gainera, ordaintzen diren soldatek ez dute laguntzen pertsonak pobreziatik ateratzen.

Injerentzia politikoak, dibertsifikazio urria, instalazioen antzinatasuna edo lan eta giza eskubideak erronka garrantzitsuak dira jutearen negozioarentzat. Ikusteko dago landare honetan jarritako interes planetarioak erronka horiei hobeto aurre egiteko eta industria horren inguruan pertsonen bizitza hobetuko duten ekimenak sortzeko balioko duen ala, aitzitik, neoliberalismoaren logikak bere arrabola aplikatuko duen berriro.

### YUTE: LA FIBRA DORADA

En el contexto actual de contaminación plástica y preocupación ambiental, ha surgido en Occidente un interés por la planta del yute. El yute es una fibra natural, resistente, 100% biodegradable y reciclable, con la que se pueden fabricar sacos, cuerdas, textiles y otros productos, que hoy en día elaboramos con plástico pero que podrían fabricarse ecológicamente con esta fibra.

El 90% de la producción mundial de yute procede del delta del río Ganges, amplia y fértil extensión de tierra entre India y Bangladés. La producción de fibra allí cuenta con una dilatada tradición. Desde los inicios de la industrialización, miles y miles de trabajadores y trabajadoras han encontrado un empleo y una forma de vida en torno a esta industria. Sin embargo, y desgraciadamente, su rutina diaria apenas ha cambiado en años (los molinos de yute funcionan prácticamente igual desde la revolución industrial). Las duras condiciones en las que se extrae la preciada “fibra dorada” (llamada así por su color y por la riqueza que genera) se han ido perpetuando; y, lejos de mejorarse, han seguido amparando a menudo situaciones de abuso y explotación. Por añadidura, los sueldos que se pagan no sirven para que las personas escapen de la pobreza.

Las injerencias políticas, su escasa diversificación, la antigüedad de sus instalaciones o los derechos laborales y humanos suponen retos importantes para el negocio del yute. Está por ver si el interés planetario en esta planta servirá para afrontarlos mejor y para que en torno a esta industria surjan iniciativas que mejoren la vida de las personas o si, por el contrario, la lógica del neoliberalismo aplicará una vez más su rodillo.

asteartea / martes > apirilak **25** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia



## TETUÁN (2022)

Iratxe Fresneda. Espainia / España. 95 min

*euskara, gaztelania, arabiera, errumaniera* *gaztelania*

Bizitza errealeko esperientzietan oinarrituta, Iratxe Fresnedak bidaia pertsonal batean murgilduko gaitu. Iraganak eta orainak bat egingo dute ikus-entzunezko esperientzia hunkigarri eta sentsorial batean. Danubio ibaiaren ertz lasaietatik hasi eta Madrilgo bizitza asaldatuan amaitu arte, lau istorio elkartu eta galduko dira Tetuan filmaren misterioetan.

Basándose en experiencias de la vida real, Iratxe Fresneda nos adentra en un viaje personal en el que pasado y presente se funden en una experiencia visual sobrecogedora y sensorial; desde las tranquilas orillas del Danubio hasta la agitada vida de Madrid, cuatro historias entrelazadas convergen y se pierden en los misterios de Tetuán.

### BIZITZAK MUGIMENDUAN

**Tetuán** bidaia bat da, pasadizoan dauden irudietan, familiako eta alde batera utzitako artxiboetan barrena. Bertako protagonisten bizitzara hurbildu nahi duen bidaia bat, bazterretan bizitako historiak berreraikitzeko. **Tetuán**en orainarekin lotzen dugu iragana, eta begirada konplizeak aurkitzen ditugu, hain desberdinak ez garela kontatzen digutenak.

Migratzaile baten alabaren bulkadak eraginda hasi nintzen istorio hau idazten eta pentsatzen; aita nor zen, zein lekutatik igaro zen, zein zailtasun izan zituen jakin behar zuen hark. Hala, jakin-min pertsonal horrek, zinemagile naizen aldetik, bilaketa partekatu bat film batean eraikitzeko nahia piztu zuen nigan azkenean.

Bidaia zinematografiko eta emozional baten bidez kontakizun honen parte naiz orain. Une batzuetan, behatzaile gisa, beste batzuetan, filmean zehar bilaketa hori, nire inplikazioa eta izan ditudan inpresioak zuzenean kontatuta.

Carmelo Fresnedaren, nire aitaren, historia kontakizun kolektibo bihurtu da. **Tetuán** Carmelo, Annemarie, Irina eta Mohameden istorioa da orain, beste istorio askotan oihartzuna duten istorioen historia. Mugimenduak elkarlotzen ditu haien bizitzak, bizimodu hobeago bat bilatzeko edo, besterik gabe, bizitzen jarraitzeko mugitu beharrak.

### VIDAS EN MOVIMIENTO

**Tetuán** es un viaje a través de las imágenes en tránsito, de los archivos familiares y de los archivos descartados, un viaje que busca acercarse a la vida de sus protagonistas para reconstruir las historias que habitan en los márgenes. En **Tetuán** entrelazamos el pasado con el presente y encontramos miradas cómplices que nos cuentan que no somos tan distintos.

Comencé a escribir y pensar está historia movida por el impulso de la hija de una persona migrante que necesitaba saber quién fue su padre, por qué lugares pasó, qué dificultades atravesó. La curiosidad personal acabó transformándose, mediante mi rol como cineasta, en el deseo fílmico por construir una búsqueda compartida.

A través de un viaje cinematográfico y emocional ahora soy parte de este relato. En algunos momentos, como observadora, en otras ocasiones, narrando en primera persona la búsqueda, mi implicación y mis impresiones a lo largo de la película.

La historia de Carmelo Fresneda, mi padre, se ha convertido en un relato colectivo. **Tetuán** es ahora la historia de Carmelo, Annemarie, Irina y Mohamed, una historia de historias que tienen su eco en otras muchas. Sus vidas están unidas entre sí por el movimiento, por la necesidad de desplazarse para buscar una vida mejor o, simplemente, para seguir viviendo.

**Iratxe Fresneda**

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Iratxe Fresneda:** filmaren zuzendaria / *directora de la película*
**Mohamed Iacob & Budbuda Abdelfatah Ubi:** filmaren protagonistak / *protagonistas de la película*

asteazkena / miércoles > apirilak **26** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia


© Adam Mach

## VICTIM (2022)

Michal Blaško. Eslovakia-Txekiar Errepublika-Alemania / Eslovaquia-República Checa-Alemania. 91 min

*txekiera, ukrainera, errusiera* *gaztelania*

Ukrainako ama ezkongabe bat da Irina, eta Igor semearekin bizi da Txekiar Errepublikako hiri txiki batean. Egun batean, bizi den eraikinean eraso eta larri zaurituta utzi dute Igor. Polizia gertatutakoa ikertzen ari den bitartean, hiri osoa mobilizatzen ari da ama-semeei babesa erakusteko eta, batez ere, auzokide erromaniei kontra egiteko. Hala ere, gaztea ospitalean sendatzen hasten denean aterako da egia argitara.

Irina es una madre soltera, inmigrante ucraniana, que vive en un pequeño pueblo checo. Un día, su hijo es agredido y gravemente herido. Mientras la policía investiga el crimen, todo el pueblo se solidariza con la madre y el hijo y condena a sus vecinos romaníes, presuntos responsables de la agresión. Después de que el hijo de Irina se despierte en el hospital, la verdad sobre su incidente comienza a desvelarse.

## ANTIGITANISMOA EUROPAN

Europako Kontseiluak honela definitzen du antigitanismoa: arrazakeriaren adierazpen espezifiko bat, ijitoen herriarekiko arraza-nagusitasunaren sinesmenean oinarritua, eta indarkeriaren, **gorrotoaren diskurtsoaren**, estigmatizazioaren eta diskriminazio gogorraren bidez adierazia. Honako ezaugarri hauek ditu: 1) sistematikoa da (komunitatearen zati handi batek onartzen du); eta 2) iraunkorra da historikoki eta geografikoki (iraunkor mantentzen da denboran zehar).

Iraunkortasun horren berri ematen du EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA) joan den urrian argitaratutako *Erromanien populazioa Europako 10 herrialdetan* txostenak. Txostenak kuantifikatu egiten du ijitoen aurkako arrazismoa ez dela murriztu Europan 2016az geroztik eta, are gehiago, gora egin duela. Izan ere, herrialde batzuetan oso modu kezkagarri batean egin du gora, Portugalen eta Txekian, esaterako. Beste herrialde batzuetan neurritsuagoa izan da igoera, baina kezkagarria era berean, Grezian eta Espainian, esaterako, non hirutik bat diskriminatua sentitzen den lana, etxebizitza edo hezkuntza bilatzeko orduan.

Diskriminazio horren zifrek adierazten dute antigitanismoa estrukturala dela gure gizartean. Ez da talde eta alderdi neonazietara mugatzen (Europan 248 dira; Espainiako Estatuan, 35); ezta eskuin muturreko alderdietara ere. Ijitoen aurkako gaitzespena sistemikoa da, baita Euskadin ere. Ikuspegi behatokiaren *Neurtu 2022* txostenaren arabera, euskal biztanleei inkesta egin ondoren, ijito bati beren etxebizitza alokatzeko suposizioa planteatu zaienean, 10 pertsonatik 4k uko egingo liokete.

Espainiako Kode Penalak, 2022ko uztailetik, gorroto-delituen artean sartzen du antigitanismoa.

## ANTIGITANISMO EN EUROPA

El antigitanismo es definido por el Consejo de Europa como una forma específica de racismo, basado en la creencia de una superioridad racial respecto al pueblo gitano, que se expresa mediante violencia, **discurso del odio**, estigmatización y discriminación descarnada. Se caracteriza porque, cuando se da: 1) es sistemático (aceptado por gran parte de la comunidad); y 2) es persistente histórica y geográficamente (se mantiene constante a lo largo del tiempo).

De esta persistencia da cuenta el informe *La población romaní en 10 países europeos*, publicado el pasado octubre por la FRA (Agencia de Derechos Fundamentales de la UE). El informe cuantifica cómo el racismo contra la población gitana no solo no ha disminuido en Europa desde 2016, sino que ha aumentado. En algunos países lo ha hecho de forma alarmante, como en Portugal y Chequia. En otros, el aumento ha sido más moderado pero igualmente preocupante, como en Grecia y en el Estado español, donde 1 persona gitana de cada 3 se siente discriminada en la búsqueda de trabajo, vivienda o educación.

Las cifras de esta discriminación denotan que el antigitanismo es estructural en nuestra sociedad. No se acota aisladamente a grupos y partidos neonazis (en Europa suman 248; en el Estado Español, 35); ni siquiera a partidos de extrema derecha. El rechazo a las personas gitanas es sistémico, también en Euskadi. Según el informe *Neurtu 2022* del Observatorio Ikuspegi, encuestada la población vasca, cuando se les plantea el supuesto de alquilar su vivienda a una persona gitana, 4 de cada 10 personas se negarían.

El Código Penal español, desde julio de 2022, incluye el antigitanismo entre los delitos de odio.

asteazkena / miércoles > apirilak **26** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia




## **CABEZA Y CORAZÓN** (2022)

Ainhoa Andraka, Zuri Goikoetxea. Espainia / España. 98 min

*gaztelania*

Espainiako emakumezkoen aulki-saskibaloiko selekzioak, historian lehen aldiz, Joko Paralinpiko batzuetara sailkatzeko aukera du. Beste jokalari bat gehiago izan daitekeenaren ikuspegiak modu intimo batean erretratatzen ditu ziklo olinpiko batean zehar, sailkapen historikoa lortu arte, fisikoki eta psikologikoki hazten ari diren hainbat emakume kirolari.

La selección española femenina de baloncesto en silla tiene, por primera vez en la historia, la posibilidad de clasificarse para unos Juegos Paralímpicos. Una mirada que podría ser la de una jugadora más retrata de manera íntima a unas deportistas que crecen física y psicológicamente a lo largo de un ciclo olímpico hasta conseguir la histórica clasificación.

### EMAKUMEAK, ERA ASKOTAKOAK, GOI-ERRENDIMENDUKO KIROLARIAK

Gizarte modernoek azken aldiko agenda politiko, sozial, ekonomiko eta kulturaletan sartu dituzte pertsonen beharrak, beren dibertsitate funtzionalaren ondorioz nolabaiteko desabantaila edo desberdintasuna duten haienak. Ezinbestekoa da herritarren zati horren eskubideak bermatzea (Espainiako Estatuan 4,4 milioi pertsona ziren 2022an; % 59, emakumeak) gizartearen partehartze osoa lortzeko.

Kirol egokituak bikain erantzuten die logika inklusiboei, jolas moduan, terapia gisa edo lehiatzeko. Izan ere, 1940ko hamarkadaren amaieran, Ludwig Guttman doktoreak, errehabilitazio fisiko eta psikologikoko prozesuetan, kirola zein eraginkorra den deskubritu eta Bigarren Mundu Gerran zauritutako soldaduekin erabili zuen. Horrela sortu zen, besteak beste, gurpil-aulkiko saskibaloia, kirol hedatuenetako bat programa paralinpikoan. Gaur egun, 80 herrialde baino gehiagotan praktikatzen da.

Gurpil-aulkiko saskibaloiko lehenengo lehiaketa paralinpikoa 1960an egin zen, Erromako Joko Paralinpikoetan, gerrak bertan behera utzitako Joko Olinpikoak berriro inauguratu eta handik 12 urtera. Espezialitate honetan, 1968ko Tel Aviveko Jokoetan lehiatu ziren aurreneko aldiz emakumeak.

2020ko Tokioko Joko Paralinpikoetan, Espainiako emakumezkoen saskibaloi selekzioak 8. postua lortu zuen. Tokioren aurretik, Bartzelona 92ko Joko Paralinpikoetan bakarrik parte hartu zuen, herrialde anfitrioi gisa. 2021eko abenduan, selekzioak mugarria jarri zuen bere lehenengo domina, brontzea, Madrilgo Europako Txapelketan eskuratu zuenean.

### MUJERES, DIVERSAS, DEPORTISTAS DE ALTO RENDIMIENTO

Las sociedades modernas han ido incorporando en sus agendas políticas, sociales, económicas y culturales de los últimos tiempos, las necesidades de personas que presentan algún tipo de desventaja o desigualdad, como consecuencia de su diversidad funcional. Es imprescindible garantizar los derechos de esta parte de la ciudadanía (que en el Estado español sumaba 4,4 millones de personas en 2022; el 59%, mujeres) para lograr una participación social plena.

El deporte adaptado sirve perfectamente a las lógicas inclusivas, ya sea practicado de manera recreativa, terapéutica o competitiva. De hecho, a finales de los años 40, el doctor Ludwig Guttman descubrió la eficacia del deporte como proceso de rehabilitación física y psicológica y lo utilizó con los soldados heridos durante la Segunda Guerra Mundial. Así surgió, entre otros, el baloncesto en silla de ruedas, uno de los deportes más populares del programa paralímpico. En la actualidad, se practica en más de 80 países.

La primera competición paralímpica de baloncesto en silla de ruedas tuvo lugar durante los primeros Juegos Paralímpicos de Roma en 1960, solo 12 años después de que se reinauguraran los Juegos Olímpicos tras su suspensión por la guerra. En esta especialidad, las mujeres no debutaron hasta los Juegos de Tel Aviv en 1968.

En los Juegos Paralímpicos de Tokio 2020, la selección española femenina de baloncesto en silla de ruedas consiguió una 8ª posición. Antes de Tokio, solo había participado en las Paralimpiadas de Barcelona 92, en calidad de país anfitrión. En diciembre de 2021, la selección hizo historia al conseguir su primera medalla, un bronce, en el Europeo de Madrid.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Ainhoa Andraka & Zuri Goikoetxea:** filmaren zuzendariak / *directoras de la película*
**Laura Seara:** Red Talento Consultoras erakundeko genero-aholkulari eta fundatzaile bazkidea, Berdintasuneko estatu idazkari ohia / *socia fundadora y consultora de género de Red Talento Consultoras y exsecretaria de Estado de Igualdad*
**Sonia Ruiz:** Espainiako aulki-saskibaloiko selekzioko jokalaria / *jugadora de la selección española de baloncesto en silla*

osteguna / jueves > apirilak **27** abril / **16:30**
Victoria Eugenia Antzokia


© Istiqlal Films - Jacques Reboud

## **LES HARKIS** (2022)

Philippe Faucon. Frantzia-Belgika / Francia-Bélgica. 82 min

*frantsesa, arabiera* *gaztelania*

Aljeriako Gerran, baliabiderik gabeko gazte aljeriar askok bat egiten dute Frantziako armadarekin: *harki*s izenekoak dira. Salah eta Kaddour horietako bi dira, eta unitate batean amaitzen dute, Pascal tenientearen agindupean. Gatazkaren egoera dela eta, Aljeriaren independentzia hurbiltzen ari dela eta *harki*en halabeharra zalantzan dagoela aurreikusten da. Pascalek nagusiei aurre egiten die bere unitateko gizon guztiak Frantziara aberriratzea lortzeko.

Durante la Guerra de Argelia, muchos jóvenes argelinos sin recursos se unen al Ejército francés: son los llamados *harki*s. Salah y Kaddour son dos de ellos y acaban en una unidad bajo las órdenes del teniente Pascal. La situación del conflicto hace prever que la independencia de Argelia se aproxima y la suerte de los *harki*s es incierta. Pascal se enfrenta a sus superiores para intentar que repatrien a Francia a todos los hombres de su unidad.

## ***HARKIAK*: ALJERIAKO ETA FRANTZIAKO HISTORIAN AHAZTUTAKOAK**

132 urtez Frantziaren kolonia izan ondoren, 1962an Aljeriak independentzia lortu zuen, 1954an hasitako gerra odoltsu baten ondoren. Alde batean, independentistak borrokan ari ziren Aljeriak Frantziako lurralde subirano izateari utz ziezaion. Beste aldean militar frantsesak zeuden, Aljerian bizi ziren hainbat belaunalditako ehunka mila kolono frantsesen aldean, Aljeriako lurraldea jada eurena zela aldarrikatzen zutenak. 8 urteko gerra, tortura eta heriotzen ondoren, Frantziak independentzia onartu zion Aljeriari, Eviango Akordioen bidez. Akordio horiek konpondu ez zituzten zauri ugarien artean, *harkiak* izenekoenak irekita daude oraindik.

Garai kolonialean –funtzionario gisa, enpresa frantsesetako langile gisa...– edo gatazka aldian Frantziako Gobernuarekin lankidetzan jardundako aljeriarrei *harkiak* izena eman zitzaien. Izen hori arabierazko *haraka* hitzetik dator, mugimendua esan nahi duena, nahiz eta herri hizkeran traidorearen sinonimo izan.

Independentziaren ondoren Aljeriako soldadu ohiek *harki* ugari epaitu eta hil zituzten. Bestetik, hamarnaka mila *harki* erbesteratu ziren Frantzian, eta errefuxiatuen kanpamenduetan hartu eta, nolabait ere, deserriratu egin zituzten. Horrela, Frantziak abandonaturik eta Aljeriak bazterturik, Alice Zeniter idazleak *harkien* eta haien ondorengoen integrazio eta errekonozimendu arazoak erretratatu zituen *L'Art de perdre* liburuan.

2021eko irailean, Frantziako presidente Macronek, utzikeria horrengatik barkamena eskatu ondoren, hainbat hamarkadatan bidegabeki ahaztutako pertsona horientzako erreparazio lege bat agindu zuen.

## ***HARKIS*: LOS OLVIDADOS EN LA HISTORIA ARGELINO-FRANCESA**

Tras 132 años siendo colonia francesa, Argelia logró su independencia en 1962, después de una cruenta guerra iniciada en 1954. En un bando, los independentistas luchaban para que Argelia dejase de ser territorio soberano francés. En el otro bando estaban los militares franceses, del lado de los centenares de miles de colonos franceses de varias generaciones que vivían en Argelia, y que reivindicaban que la tierra argelina ya era suya. Después de 8 años de guerra, torturas y muertes en ambos bandos, Francia reconoció la independencia a Argelia, a través de los Acuerdos de Evian. De entre las muchas heridas que estos acuerdos no repararon, las de los llamados *harki*s siguen todavía abiertas.

*Harki*s es el nombre con que se denominó a los argelinos que colaboraron con el Gobierno francés en la etapa colonial (como funcionarios, trabajadores de empresas francesas...) o durante la contienda. Su nombre deriva de la palabra árabe *haraka*, que significa movimiento, aunque en el lenguaje popular es sinónimo de traidor.

Tras la independencia, muchos *harki*s fueron juzgados, e incluso asesinados por excombatientes en Argelia. También varias decenas de miles de *harkis* se exiliaron en Francia, donde fueron alojados, en cierto sentido desterrados, en campamentos de refugiados. Así, abandonados por Francia y rechazados por Argelia, la escritora Alice Zeniter retrató los problemas de integración y reconocimiento de los *harkis* y sus descendientes en su libro *El arte de perder*.

En septiembre de 2021, el presidente francés Macron, tras pedir perdón por ese abandono, prometió una ley de reparación para estas personas injustamente olvidadas durante décadas.

**AURKEZPENA / *PRESENTACIÓN***

**Philippe Faucon:** filmaren zuzendaria / *director de la película*

osteguna / jueves > apirilak **27** abril / **19:00**
Victoria Eugenia Antzokia


© Nico de Assas.

## LAS BUENAS COMPAÑÍAS (2023)

Sílvia Munt. Espainia-Frantzia / España-Francia. 93 min

*gaztelania*

1977ko uda. Beak 16 urte ditu eta aldaketak bultzatzeko herrialdean zehar zabaltzen ari diren mugimenduetara elkartu da. Emakume talde batekin kolaboratzen du kausa feminista ikusarazteko eta abortatzeko eskubidea onartzea lortzeko. Odola berotzen dion bere errebeldia hori ustekabeko sentimendu batekin nahastuko da, eta zeharo aldaraziko du barnean duen mundua. Hilabete horietan zehar, Beak oso adiskidetasun berezia izango du Mirenekin, bera baino zaharragoa den neska batekin. Bere konpromiso politikoak eta Mirenekin duen harremanak bere bizitzan mugarri izango den etapa bihurtuko dute uda hori.

Verano de 1977. Bea tiene 16 años y se suma a los aires de cambio que recorren el país. Colabora con un grupo de mujeres para visibilizar la causa feminista y lograr la aprobación del derecho al aborto. La rebeldía que siente en la sangre se mezclará con un sentimiento inesperado que trastocará su mundo interior. A lo largo de estos meses, Bea entablará una amistad muy especial con Miren, una chica algo mayor que ella. Su compromiso político y su relación con Miren convertirán ese verano en una etapa que marcará un antes y un después en su vida.

### ERRENTERIA: FEMINISMOA ETA ABORTATZEKO ESKUBIDEA

Joan den otsailean, Kongresuak abortuaren legearen erreforma onartu zuen. Legeria berriak ospitale publikoetan abortatzeko eskubidea bermatzen du, 16 urteko gutxieneko adina finkatzen du gurasoen eta tutoreen baimenik gabe abortatzeko, kontzientzia-eragozpena arautzen du eta hausnarketarako egunak eta haurdunaldiarekin jarraitu nahi izanez gero eskura dauden laguntzei buruzko informazioa emateko betebeharra ezabatzen ditu.

Erregulazio horren bidez, emakumeek haurdunaldia eteteko duten eskubide osoa eragozten zuten oztopo batzuk kentzea lortu da. Lege berriak abortu segurua eta irisgarria bermatzen die emakumeei, eta Europako eta munduko aurreratuenen artean dago. Testuinguru horretan, bidezkoa da azpimarratzea hori lortzea, pertsonen eskubide gehienak bezala, borroka- eta konpromiso-prozesu historiko baten ondorio dela, non emakume askok arriskuan jarri zituzten beren askatasuna eta beren bizitza.

Aurrera eraman izan ziren borroka ugarien adibide bat dugu Errenteriako Emakumeen Taldearen barruan antolatutako emakume feministena. 70eko hamarkadan talde klandestino bat sortzea erabaki zuten haiek, beste emakume batzuei abortatzen laguntzeko. Hala, emakume haien ekintza zuzenak eta ikuspegi feminista eta eraldatzaileak bidea erraztu zuten. Haiek gabe, ez zen posible izango egungo erreforma.

### ERRENTERIA: FEMINISMO Y DERECHO AL ABORTO

El pasado mes de febrero, el Congreso aprobó la reforma de la ley del aborto. La nueva y esperada legislación garantiza el derecho al aborto en los hospitales públicos, fija el mínimo de edad en los 16 años para abortar sin permiso de madres, padres y tutores, regula la objeción de conciencia y elimina los días de reflexión y la obligación de entregar información sobre las ayudas disponibles en caso de desear continuar con el embarazo.

Mediante esta regulación, se han conseguido remover algunos obstáculos que impedían todavía el pleno derecho de las mujeres a la interrupción del embarazo. La nueva ley garantiza abortos seguros y accesibles a las mujeres, y se sitúa entre las más avanzadas de Europa y del mundo. En este contexto, es de justicia subrayar que su consecución, como la mayoría de los derechos de las personas, responde a un proceso histórico de lucha y de compromiso en el que muchas mujeres arriesgaron su libertad y pusieron en peligro sus vidas.

Un ejemplo de las muchas luchas que se llevaron a cabo es el de un grupo de mujeres feministas organizadas dentro de Errenteriako Emakumeen Taldea (Grupo de Mujeres de Errenteria) que, en la década de los años 70, decidieron crear un grupo clandestino para ayudar a abortar a otras mujeres. La acción directa de esas mujeres y su perspectiva feminista y transformadora allanaron el camino. Sin ellas, la actual reforma no habría sido posible.

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**Sílvia Munt:** filmaren zuzendaria / *directora de la película*
**Alicia Falcó & Elena Tarrats:** filmaren protagonistak / *protagonistas de la película*
**Arantxa Olañeta:** Errenteriako Emakumeen Taldea / *Grupo de Mujeres de Errenteria*

ostirala / viernes > apirilak **28** abril / **17:00**
Victoria Eugenia Antzokia

**librea gonbidapenarekin /** gratis con invitación



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

## NADIE ESTÁ LEJOS (2022)

José Antonio Vitoria. Espaina / España. 45 min

*gaztelania*

Pobrezia, etxegabetasun edo kalteberatasun ekonomikoko egoeran dauden pertsona talde baten esperientzia jasotzen du dokumentalak eta, bereziki, Iruñeko PARIS 365 jangela solidarioko erabiltzaileenak. Haiek, Ados Teatroa antzerki taldearekin batera, *Aporofobia STOP* ikuskizunaren sortze-prozesuan parte hartzen dute. Antzerki Sozialaren Ars Mediterranea 2022 Saria jaso berri duen proiektuak arte eszenikoak erabiltzen ditu kolektibo hori positiboan ikusarazteko eta eraldatzeko tresna gisa.

El documental recoge la experiencia de un grupo de personas en situación de pobreza, sinhogarismo o vulnerabilidad económica y, en particular, usuarios y usuarias del comedor solidario PARIS 365 de Pamplona, que participan junto a la compañía Ados Teatroa en el proceso creativo del espectáculo *Aporofobia STOP*. El proyecto, que acaba de recibir el Premio Ars Mediterranea 2022 de Teatro Social, utiliza las artes escénicas como instrumento de visibilización en positivo y transformación de este colectivo.

### ETXEGABETASUNA ETA SORKUNTZ KULTURAL PARTEKATUA

Pobrezia edo etxegabetasuna ez dira inoren berezko ezaugarriak, faktore askorengatik irits daitekeen egoera bat baizik. Era askotako pobreak daude, besteak beste, unibertsitarioak, landunak baina etxebizitza bat eskuratzeko adina irabazten ez dutenak, edo bat-batean langabe dauden gurasoak. Inor ez dago pobreziatik edo bere burua kalean ikustetik salbu. Nahikoa da zirkunstantzia txar batzuk kateatzea.

2016an, Koldo Losada gure lankidearen hilketaren ondoren, **Giza Eskubideak Eszenara** lan-ildoa jarri genuen abian. Eraldaketa soziala sustatzen du sorkuntza kultural partekatuaren bidez, giza eskubideen hainbat alderdiri buruzko sentsibilizazio eta hausnarketarako prozesuak irekitzera bideratua.

Bertan egiten dugu lan zuzenean eta maila berean kulturako profesionalek eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboek (adinekoak, gaixotasun mentala diagnostikatu zaien pertsonak, adikzioren batengatik errehabilitazioan dauden pertsonak, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrak, eta kalteberatasun ekonomikoko edo etxegabetasuneko egoeran dauden pertsonak) eta sortze-prozesu irekiak eta lankidetzakoak sustatzen ditugu. Prozesu horien gidoia bidea egin bitartean sortzen da, eta ikuskizun, erakustaldi edo ikus-entzunezko pieza baten ekoizpenarekin amaitzen da, gizartean normalean “radarretik kanpo” dauden arazoak argitara ateratzea helburu.

### SINHOGARISMO Y CREACIÓN CULTURAL COMPARTIDA

La pobreza o el sinhogarismo no son características propias de ninguna persona sino una situación a la que se puede llegar por muchos factores. Hay múltiples nuevas formas de pobres, que incluyen desde universitarias y universitarios a gente que tiene trabajo pero que no gana lo suficiente para acceder a una vivienda, o madres y padres de familia que, de repente, se encuentran sin empleo. Nadie está a salvo de la pobreza o de verse en la calle. Basta con que se encadenen una serie de circunstancias adversas.

En 2016, tras el asesinato de nuestro compañero Koldo Losada, pusimos en marcha la línea de trabajo **Derechos Humanos a Escena**, que promueve la transformación social a través de la creación cultural compartida, encaminada a abrir procesos de sensibilización y reflexión sobre distintos aspectos de los derechos humanos.

En ella trabajamos directamente y en pie de igualdad profesionales de la cultura y colectivos en riesgo de exclusión (personas mayores, personas con diagnóstico de enfermedad mental, personas en rehabilitación por algún tipo de adicción, menores extranjeros y extranjeras no acompañados o personas en situación de vulnerabilidad económica o sinhogarismo), promoviendo procesos creativos abiertos y colaborativos, cuyo guion se genera en el propio camino y que culminan con la producción de un espectáculo, muestra o pieza audiovisual que saca a la luz problemas habitualmente “fuera de radar” de la sociedad.

**Ados Teatroa**

**SOLASALDIA / *COLOQUIO***

**José Antonio Vitoria:** filmaren zuzendaria / *director de la película*
**Andrea Segovia:** filmaren protagonista / *protagonista de la película*
**Iñigo Estomba:** Donostiako Udaleko Gizarteratze Zerbitzuko burua / *jefe del Servicio de Inserción Social del Ayuntamiento de San Sebastián*

ostirala / viernes > apirilak **28** abril / **20:00**
Victoria Eugenia Antzokia

**BUKAERA /** CLAUSURA


**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

© Sensito Films

## TOI NON PLUS
## TU N'AS RIEN VU (2022)

Béatrice Pollet. Frantzia / Francia.
93 min

*frantsesa* *euskara*

Claire eta Thomas zorioneko bikote ezkondu bat dira eta bi alaba dituzte. Baina poliziak Clairerena dirudien jaioberri bat aurkitzen duenean beren etxetik gertu, amesgaizto bihurtzen dira haien bizitzak. Clairek dio ez zekiela haurdun zegoela, baina posible al da hori? Sophie, bere lagun eta abokatu onena, Claireren defentsa prestatzen ari den bitartean, amatasunaren esentzia bera bihurtzen da kasuaren muina.

Claire y Thomas están felizmente casados y tienen dos hijas. Pero cuando la policía encuentra un recién nacido que parece ser de Claire cerca de su casa, sus vidas se convierten en una pesadilla. Claire dice que no sabía que estaba embarazada, pero, ¿es esto posible? Mientras su mejor amiga y abogada Sophie prepara su defensa, la esencia misma de la maternidad se convierte en el corazón del caso.

### (IN)JUSTIZIA EZKUTUKO HAURDUNALDIEN AURREAN

Haurdunaldien artean kriptikoak deitzen zaien horiek daude. Ukatu edo ezkutatzen diren haurdunaldiak dira, eta horietan haurdun dagoen emakumea ez da konturatzen haurdun dagoela erditu arte, edo erditu ondoren. Arrazoiak honako hauek izan daitezke: haurdunaldiaren sintomatologia nahastea emakumeak aurretik dituen patologiekin, odolustua nahastea hilerokoarekin, loditasuna kamuflatzen duen obesitatea… Erditzearen unea iritsitakoan, gertatu izan da haurra kanporatu duen arte emakumea ez dela konturatu uzkurdurak izan dituela; edo kanporatze hori halako *shock* egoeratan gertatzen denez gero –hemorragia eta koaguluak tartean direla– amak ez duela identifikatu kanporatutako erraia fetutzat, eta zakarrontzira ere bota izan du. Hala gertatu zitzaion Argentinan duela gutxi egindako epaiketa batean inputatutako emakumeari. Auzitegi batek absolbitu egin zuen 2022ko abenduan, bi urtez kartzelan egon ondoren bere haurraren hilketaz akusatua.

Emakume presoen antzeko beste kasu batzuk Carrera, Saralegui eta Orrego-Hoyosen *Dicen que tuve un bebé* liburuan daude jasota. Bertan gertaera judizialak kontatzen dira, zalantzan jartzen dutenak justiziaren gaitasuna, kontsigna kontserbadore eta tradizionalki matxista baten pean, gorputz haurdunak ikuspegi desberdin baten arabera epaitzeko.

Testu feminista honek eta beste batzuek zera aldarrikatzen dute: osasunaren eta zuzenbidearen arloko operadoreek haurdunaldia ukatzearen nahasmenduari edo dibertsitate obstetrikoari lotutako kasuei heltzea, patriarkalismo historikoan ainguratutako aurreiritzirik eta moralitaterik gabe. Era berean, aldarrikatzen da gizarteak ez ditzala gaitzetsi ama gaiztotzat halako haurdunaldiak jasaten dituzten emakumeak, eta errespetatu ditzala ugaltze-osasunerako eta indarkeriarik gabe bizitzeko dituzten giza eskubideak.

### LA (IN)JUSTICIA ANTE LOS EMBARAZOS OCULTOS

Existe un tipo de embarazos llamados crípticos, negados u ocultos en los que la mujer gestante no se da cuenta de que está embarazada hasta el momento mismo del parto, o después de haber dado a luz. Las causas pueden ser: una sintomatología del embarazo confundible con patologías preexistentes, sangrados interpretados como menstruaciones, obesidad que camufla la gordura… Llegado el momento del alumbramiento, se han dado casos en los que la mujer no reconoce las contracciones hasta que expulsa al bebé; o que incluso esta expulsión se produce en tal escenario de *shock*, hemorragia y coágulos, que la madre no identifica la víscera expulsada como un feto, llegando incluso a tirarlo a la basura. Así le ocurrió a la mujer imputada en un juicio reciente en Argentina, a quien un tribunal ha absuelto en diciembre de 2022, tras dos años encarcelada acusada de homicidio por la muerte de su bebé.

Otros casos similares de mujeres presas son recogidos en el libro *Dicen que tuve un bebé* de Carrera, Saralegui y Orrego-Hoyos. Narra historias judiciales que cuestionan la capacidad de la justicia, escrita bajo consignas conservadoras y tradicionalmente machistas, para juzgar a los cuerpos gestantes bajo un prisma diverso.

Desde este y otros textos feministas, se reivindica que los operadores de la salud y jurídicos aborden los casos de trastorno de negación del embarazo o de diversidad obstétrica sin prejuicios y moralidades ancladas en el patriarcalismo histórico. También se reivindica que la sociedad no repudie por malas madres a quienes padecen este tipo de embarazos, y respete sus derechos humanos a la salud reproductiva y a vivir libres de violencia.

# SUSCRIPCIÓN

La suscripción en papel incluye, GRATIS, la EDICIÓN DIGITAL




REGALO ESPECIAL PARA NUEVAS SUSCRIPCIONES EN PAPEL*

## SUSCRIPCIÓN 1 AÑO

11 NÚMEROS (uno gratis) **50 €**

---

Llévese GRATIS uno de estos dos GRANDES REGALOS

(A)




**EL COLOR PÚRPURA**
STEVEN SPIELBERG

(B)




**A.I INTELIGENCIA ARTIFICIAL**
STEVEN SPIELBERG

arvi

*Oferta válida solo para España hasta el 27/04/2023, para nuevos suscriptores y con el límite de las existencias de Blu-ray disponibles.

**Suscríbase o haga su pedido en nuestra web:**

**www.caimanediciones.es**

TABAKALERA

## ZINEMA ETA MEMORIA

Mugimendudun irudiek Historia, Politika edo/eta Kontzientzia sortzeko duten ahalmena balioan jartzen duen sail bat.

## CINE Y MEMORIA

Una sección que pone en valor el poder de las imágenes en movimiento para generar Historia, Política y/o Conciencia.

asteazkena / miércoles > apirilak **26** abril / **19:00**

### THE MARCH ON ROME
(*Marcia su Roma*, 2022)

Mark Cousins. Italia. 98 min

🔈 *ingelesa, italiera* ⊜ *gaztelania*



**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

Oso gutxitan ikusi izan den artxibo baten bidez, eta bere analisi zinematografikoaren estilo bereizgarriarekin, Mark Cousinsek Italiako faxismoaren goraldia kontatzen du, baita Europan zehar izan zuen hedapena ere 1930eko hamarkadan. Saiakera filmikoa eta dokumentu historikoa aldi berean, Cousinsek orainaren testuinguruan kokatzen du istorioa, eskuin mutur beldurgarri bat eta hedabide manipulatu batzuk islatzen diren paisaia politiko baten aurrean ispilu bat jarrita.

A través de un archivo muy poco visto y con su característico estilo de análisis cinematográfico, Mark Cousins cuenta el ascenso del fascismo en Italia y su posterior expansión por la Europa de los años 30. Ensayo fílmico y documento histórico al mismo tiempo, Cousins contextualiza la historia con el ahora, poniendo un espejo frente a un paisaje político en el que se reflejan una terrorífica extrema derecha y unos medios de comunicación manipulados.

osteguna / jueves > apirilak **27** abril / **19:00**

### EVERYTHING WILL BE OK (2022)

Rithy Panh. Frantzia-Kanbodia / Francia-Camboya. 98 min

🔈 *frantsesa* ⊜ *euskara*


**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

Animaliak izango balira boterearen jabe: Gizakien jokabidean oinarrituko lukete eurena? Kontsumo basati bat praktikatuko lukete, ingurumena suntsitzeraino? Haien akatsak errepikatuko lituzkete? Botere egarri bera, krudelkeria bera erakutsiko lukete? Demagogiaz, izuaz eta totalitarismoaz baliatuta gobernatzea aukeratuko lukete? Artean eta zinemagintzan jardungo lukete edo biziraupenari begira oinarrituko lukete guztia? "Zaharrekin" (gizakiekin) batera biziko lirateke ala esklabo bihurtuko lituzkete? Nahia eta indarra erakutsiko lukete Gaizkia egiteko joerari aurre egiteko? Enpatia erakutsiko lukete planeta partekatzen duten gainerako izakiekiko?

Si los animales tuvieran el poder, ¿basarían su comportamiento en el de los seres humanos? ¿Practicarían un consumo salvaje hasta el punto de destruir su entorno? ¿Repetirían sus mismos errores? ¿Tendrían la misma sed de poder, la misma crueldad? ¿Elegirían gobernarse con demagogia, terror y totalitarismo? ¿Se dedicarían al arte y al cine o todo lo enfocarían hacia la supervivencia? ¿Convivirían con los "antiguos" (los humanos) o los esclavizarían? ¿Tendrían el deseo y la fuerza para resistir sus inclinaciones hacia el Mal? ¿Manifestarían empatía por las demás criaturas con las que comparten el planeta?

ostirala / viernes > apirilak **28** abril / **19:00**

### WANIBIK: THE PEOPLE WHO LIVE IN FRONT OF THEIR LAND (2022)

Rabah Slimani. Aljeria-Mendebaldeko Sahara / Argelia-Sahara Occidental. 95 min

🔈 *hassaniya* ⊜ *gaztelania*


**Lehiaketatik kanpo /** Fuera de concurso

2020ko azaroaren 13an Marokoren okupazioaren aurkako gerrari berriro ekin ondoren, Mendebaldeko Saharako zinema eskolako ikasle talde batek beren graduazioko pelikula filmatu eta, sufrimenduaren, borrokaren, determinazioaren eta erresistentziaren artean, Lotsaren Harresia aukeratu zuten proiektuaren hari gidari izateko.

Tras la reanudación el 13 de noviembre de 2020 de la guerra contra la ocupación marroquí, un grupo de estudiantes de la escuela de cine del Sahara Occidental rueda su película de graduación y elige el Muro de la Vergüenza como hilo conductor del proyecto, entre el sufrimiento, la lucha, la determinación y la resistencia.

## HAUR ETA GAZTEENTZAKO FILMAK

Ikastetxeei giza eskubideen inguruan lan egiteko eskainitako film luzeak. Pelikulen gaia lantzeko gida didaktikoak ere banatuko dira (jaialdiaren webgunean ikus daitezke). Filmeen gai nagusiak honako hauek izango dira: jolasteko eskubidea, birziklatzea, zaborren kudeaketa, ingurumena eta genero identitatea.

## PELÍCULAS INFANTILES Y JUVENILES

Largometrajes ofrecidos a los centros educativos para trabajar sobre los derechos humanos. Al visionado se añaden unas guías didácticas preparadas sobre cada una de las películas, que se pueden ver en la web del festival. Los temas centrales en las películas son el derecho a jugar, el reciclaje, la gestión de la basura, el medio ambiente y la identidad de género.

---

### YOKO OPORRETAN (2022)

Juanjo Elordi. Espinia / España. 61 min

*euskara*



Udako oporrak iritsi dira, eta, elkar ezagutu zutenetik lehen aldiz, lau lagunak banandu egingo dira. Mai, Oto eta Vik bidaian doaz, bakoitza bere familiarekin, munduko hainbat lekutara. Yoko bakarrik geratuko da parkean Mirentxurekin. Zer egingo du Yoko gaixoak lagunik gabe? Eta hiru umeak izango al dira gai opor-lekuetan lagun berriak egiteko?

Llegan las vacaciones de verano y, por primera vez desde que se conocieron, los cuatro amigos se van a separar. Mai, Oto y Vik se van de viaje, cada uno con su familia, a diferentes partes del mundo. Yoko se queda solo en el parque con Marisol. ¿Qué hará el pobre Yoko sin sus amigos ¿Podrán los tres niños hacer nuevos amigos y amigas allá donde vayan?

---

### TRASH (2020)

Francesco Dafano, Luca Della Grotta. Italia. 88 min

*euskara*



Slim bere patuari uko egin dion eta ezertan sinesten ez duen kartoizko kaxa hautsia da, baina bere bizitza aldatu egingo da Spark kaxa ezagutzen duenean; izan ere, edozein hondakini probetxua atera dakiokeela konbentzitzen saiatuko zaio, abentura dibertigarrien bidez, lagun berria.

La vida de Flaco, una caja de cartón rota que ha renunciado a su destino y ya no cree en nada, cambia al conocer a la caja Rayo, que a través de divertidas aventuras intentará convencerlo de que a cualquier desecho se le puede sacar provecho.

---

### GABI, 8 URTETIK 13 URTERA
(*Gabi, mellan åren 8 till 13*, 2021)

Engeli Broberg. Suedia-Norvegia / Suecia-Noruega. 60 min

*euskara*



Gabik Gabi baino ez du izan nahi. Asmo erraza dirudi, baina ez da hain erraza. Gabi desberdin sentitzen da. 8 urte ditu, eta orain arte gauzak argi eta garbi esatea ez da inoiz arazo izan harentzat. Familia herri txiki batera bizitzera joaten denean, ordea, eta nerabezaroa azaltzean, gauzak aldatu egiten dira.

Gabi simplemente quiere ser Gabi. Un deseo que parece sencillo, pero que no lo es. Gabi se siente diferente. Aunque en sus 8 años de vida decir las cosas claras nunca le ha supuesto ningún problema. Pero cuando la familia se traslada a un pequeño pueblo y llega a la pubertad, las cosas empiezan a cambiar.

## GAZTE EPAIMAHAIAREN SARIA FILM LABUR ONENARI

Epaimahai Gazteak Laburmetraia Onenaren Saria ematen du urtero, 3.000 €-koa. UPV/EHU, Deusto Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen laguntzarekin.

## PREMIO DEL JURADO JOVEN AL MEJOR CORTOMETRAJE

El Jurado Joven otorga cada año un Premio al Mejor Cortometraje, dotado con 3.000 €. Con la colaboración de la UPV/EHU, la Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea.



(2022) **Prescindibles**

---

## IKUSLEEN SARIA FILM LUZE ONENARI

## PREMIO DEL PÚBLICO AL MEJOR LARGOMETRAJE



(2022) **Nuestra libertad**

---

## AMNESTY INTERNATIONAL SARIA

Amnesty International munduko mugimendu bat da, demokratikoa eta independentea. 10 milioitik gora bazkide, aktibista eta jarraitzaile ditu, injustizia gai pertsonaltzat hartzen dutenak. Munduko ia herrialde guztietan dihardu, pertsona orok bere giza eskubideak gauzatu ahal izan ditzan.

Amnesty Internationalak erabateko independentzia ekonomikoz eta politikoz garatzen du bere lana. Gobernuen dirulaguntzak eta alderdi politikoen donazioak jasotzeari uko egitea erabaki duen erakundea da, bere inpartzialitatea eta ekintzarako askatasuna babestearren.

Zinea tresna ezin hobea izan daiteke giza eskubideen zerbitzura. Zineak beti jaso izan ditu, bere hastapenetatik, pertsonen duintasuna erasotzen duten injustiziak. Horrexegatik eman dio bere babesa Amnesty Internationalek Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiari, giza eskubideen defentsan bereziki laguntzen duen film luze bati Amnesty International Saria eskainiz. Amnesty Internationaleko kideek eta ikus-entzunezko profesionalek osatutako epaimahaiak erabakitzen du Saria.

## PREMIO AMNISTÍA INTERNACIONAL

Amnistía Internacional es un movimiento mundial, democrático e independiente, con más de 10 millones de socios y socias, activistas y simpatizantes que se toman la injusticia como algo personal. Actúa en casi todos los países del mundo para que todas las personas puedan disfrutar de sus derechos humanos.

Amnistía Internacional desarrolla su trabajo con absoluta independencia económica y política. Es una organización que ha optado por renunciar a las subvenciones de gobiernos y a las donaciones de partidos políticos con el objetivo de preservar su imparcialidad y libertad de acción.

El cine puede ser una fantástica herramienta al servicio de los derechos humanos. El cine siempre se ha hecho eco, desde sus inicios, de las injusticias que atentan contra la dignidad de las personas. Por ello, Amnistía Internacional brinda su apoyo al Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián con la entrega del Premio Amnistía Internacional a un largometraje por su especial contribución a la defensa de los derechos humanos. El Premio es fallado por un jurado integrado por miembros de Amnistía Internacional y profesionales del sector audiovisual.

**Epaimahaia / Jurado**

- **Olatz Beobide**. Aktorea eta zuzendaria / *Actriz y directora*
- **Saúl Castro**. Giza Eskubideen eta LGTBIen abokatua eta Amnistia Internazionaleko kidea / *Abogado de Derechos Humanos y LGTBI y miembro de Amnistía Internacional*
- **Kike Díaz de Rada**. Aktorea / *Actor*
- **Ricardo Martín**. Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta Amnistia Internazionaleko kidea / *Profesor de Secundaria y miembro de Amnistía Internacional*
- **Itziar Medrano**. Historialaria eta Amnistia Internazionaleko kidea / *Historiadora y miembro de Amnistía Internacional*

AMNESTY INTERNATIONAL



(2022) **Fadia's Tree**

bitez translating worlds

desde since 1985etik

AENOR SERVICIOS DE TRADUCCIÓN ISO 17100

AENOR GESTIÓN DE LA CALIDAD ISO 9001

IQNet CERTIFIED MANAGEMENT SYSTEM



## DONOSTIAKO ESPETXEA

Mota honetako kultur ekimenetatik baztertuta dauden kolektiboen eskuragarritasuna hobetzeko aurreikusitako jardueren artean, Giza Eskubideen Zinemaldiak **film laburren emanaldia** eta, ondoren, solasaldia antolatu ditu Donostiako Espetxean.

## CENTRO PENITENCIARIO SAN SEBASTIÁN

Entre las actividades previstas para mejorar la accesibilidad de colectivos excluidos de este tipo de iniciativas culturales, el Festival de Cine y Derechos Humanos organiza una **sesión de cortometrajes** con debate posterior en el Centro Penitenciario San Sebastián.




### Cuerdas (2022)

Estibaliz Urresola Solaguren. Espainia / España. 30 min *gaztelania*

Gaur Ritak bilera garrantzitu bat dauka bere abesbatzako gainontzeko emakumeekin. Izan ere, entsegu-lokala ordaintzeko jasotzen zuten udal-dirulaguntza galdu dute eta abesbatza bertan behera geratu eta taldea desegiteko arriskuan dago. Hori dela eta bailarako enpresarik handienetarikoa, baita kutsakorrenetarikoa ere, diru bat eskeini die babesletza gisa. Diru horrekin abesbatzak aurrera jarraitu ahalko luke. Emakumeak bildu behar dira dirua onartu ala ez erabakitzeko.

Hoy Rita tiene una reunión importante con sus compañeras de canto: la coral de mujeres a la que pertenece corre peligro de disolverse porque han perdido la subvención municipal con la que alquilaban el local de ensayo. Sin embargo, una de las mayores empresas del valle, altamente contaminante, ha ofrecido un tentador patrocinio al grupo que significaría la salvación de la formación. Las mujeres se han reunido para deliberar si aceptar o no el dinero de la empresa.

**+**



### Si me querei, irse (2023)

(2023). Sofía Muñoz. Espainia / España. 9 min *gaztelania*

Igandero bezala, paella bat prestatzen ari da Juana, familiaz inguratuta. Bere senar Peperen erretiroaren berri izatean, ospakizun hau ere zama astun bat izango da.

Juana prepara una paella como cada domingo rodeada de su familia. La noticia de la jubilación de su marido Pepe convierte una celebración más en una pesada carga.

---



**HITZALDIA / CHARLA**

Antolatzaileak / *Organizan*

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

San Telmo Museoa

osteguna / jueves > apirilak **20** abril / **19:00**
San Telmo Museoa

sarrera librea / entrada libre + *streaming*

## GIZA ESKUBIDEAK AFGANISTANEN
## LOS DERECHOS HUMANOS EN AFGANISTÁN

**Nazima Nezrabi** (Afganistango epailea / *jueza afgana*)

**XXVI GIZA ESKUBIDEEN IKASTAROA**

Talibanek Afganistanen erabateko kontrola berreskuratu dutenetik, giza eskubideen arloan azken 20 urteetan egindako aurrerapenak oso atzera egiten ari dira. Bereziki larria da herritar gehienei eragiten dien gosea eta miseria, baita emakumeen eta nesken oinarrizko eskubideen urraketak ere, hala nola hezkuntzarako eskubidea. Atzerapauso horiek zein diren eta Afganistango biztanleentzat ez ezik, gizateria osoarentzat zer arrisku dakarten aztertuko dugu.

**XXVI CURSO DE DERECHOS HUMANOS**

Con los talibanes recuperando el control total de Afganistán, los avances de los últimos 20 años en materia de derechos humanos están en grave retroceso. Especialmente grave es el hambre y la miseria que afecta a la mayor parte de la población, así como las violaciones de los derechos más básicos de las mujeres y niñas, como es su derecho a la educación. Analizaremos cuáles son estos retrocesos y el riesgo que suponen, no solo para la población afgana, sino para toda la humanidad.




Antolatzailea / *Organiza*

EUSKADIKO GGKEen KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA de ONGD EUSKADI

Badakigu zure bihotza hunkitzen duela klima aldaketaren ondorioz urtzen ari den izotz zati baten gainean dagoen hartz polarraren irudiak.

Har ezazu parte interneteko jolas dibertigarri honetan, eta jakin ezazu zer dagoen egunero edaten duzun uraren atzean, zer ez dizuten kontatzen 10 euroko hegaldiez, edo zer dagoen zure esku mundu hau bizitzeko leku egokiago egiteko.

10 galdera eta 3 minutu dituzu zure ohiturek planeta nola zaintzen duten (edo ez) jakiteko eta haren jasangarritasunerantz aurrera egiteko. Parte-hartzaile guztien artean 5 bonu zozketatuko ditugu Donostiako kontsumo eraldatzailearen sareko dendetan (Saretuz) gastatzeko. Guztira, 50 saltoki baino gehiago dira; beraz, aukera ugari izango dituzu!

Onartzen al duzu erronka?

Sartu jolasean honako hauen bidez:

Sabemos que la imagen del oso polar sobre un pedazo de hielo derritiéndose por el cambio climático ablanda tu corazoncito.

Participa en este divertido juego *online* y conoce qué hay detrás del agua que bebes cada día, lo que no te cuentan de los vuelos a 10 euros o lo qué está en tus manos para hacer de este mundo un lugar más habitable.

Tienes 10 preguntas y 3 minutos para descubrir cómo tus hábitos cuidan (o no) el planeta y para avanzar hacia su sostenibilidad. Entre todas las personas participantes sorteamos 5 bonos para gastar en comercios de la red de consumo transformador de Donostia (Saretuz). ¡Son más de 50 tiendas, así que tienes muchas opciones!

¿Aceptas el reto?

Accede al juego a través de:

www.labur.eus/esnatu2023
www.ongdeuskadi.org
www.zinemaetagizaeskubideak.eus

Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundearen proposamena, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiarekin elkarlanean, eta Donostiako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin.

Una propuesta de la Coordinadora de ONG de Desarrollo de Euskadi en colaboración con el Festival de Cine y Derechos Humanos de Donostia y con el apoyo del Ayuntamiento de Donostia, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.




Okendo K. E.
martxoak **2** marzo - maiatzak **4** mayo
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes: **10:00 – 14:00 / 16:00 – 20:30**
larunbatak eta zubiak / sábados y puentes: **10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00**
igandeak eta jaiegunak / domingos y festivos: **itxita / cerrado**

Laguntzailea / *Colabora*

MUME
**Museu Memorial de l'Exili**

## CARMEN CASTILLO, TXILEKO ERBESTERATU BAT

Erakusketa Imma Merino kultur kazetari eta zinema kritikariak komisariatu du, Carmen Castillo (Santiago, Txile 1945) zinemagile dokumentalista eta idazlearen erbestealdiaren inguruko ibilbidea da. MIReko (Movimiento de Izquierda Revolucionaria) militantea, 1973ko irailaren 11n Salvador Allende Castilloren Gobernu legitimoa boteretik kendu zuen kolpearen ondorioz, sasian ibili zen eta diktaduraren aurka borrokatu zen. DINak 1974ko urriaren 5ean Miguel Enriquezekin partekatzen zuen etxea eraso eta hau hil zuten. 1974ko urriaren 5ean DINAk Miguel Enriquezekin konpartitzen zuen etxea eraso zuen arte, bertan berau hil zutela.

Atxilotua, Txiletik kanporatua izan zen eta erbestealdi luze bat hasi zuen, Parisen bizitzen jartzera eraman zuena. Demokraziaren itzulerarekin, noizbehinka itzuli da bere herrialdera, baina erbesteratua sentitzeari ez dio inoiz utzi. Erakusketa memoria historikoari buruzko bere dokumentalen zati esanguratsuenekin (**La Flaca Alejandra** eta **Calle Santa Fe**) eta bere liburuekin: *Un día de octubre en Santiago*, *Ligne de fuite*, *Santiago-París. El vuelo de la memoria* (Mónica Echevarría, bere amarekin batera idatzitakoa); osatzen da. Bere eta besteen testuak, beste dokumentu eta elementuez gain, oihartzun unibertsala duen esperientzia pertsonal baten berri ematen dute.

## CARMEN CASTILLO, UNA EXILIADA CHILENA

La exposición, comisariada por la periodista cultural y crítica de cine Imma Merino, consiste en un recorrido por la experiencia del exilio de la cineasta documentalista y escritora Carmen Castillo (Santiago de Chile, 1945). Militante del MIR (Movimiento de Izquierda Revolucionaria), a raíz del golpe del 11 de septiembre de 1973 que derrocó al Gobierno legítimo de Salvador Allende, Castillo pasó a la clandestinidad y luchó contra la dictadura hasta que, el 5 de octubre de 1974, la DINA asaltó la casa donde vivía junto a su compañero Miguel Enríquez, que fue asesinado. Detenida, fue expulsada del país y comenzó un largo exilio que la llevó a instalarse en París.

Con el retorno de la democracia, ha vuelto periódicamente a su país, pero nunca ha dejado de sentirse una exiliada. La exposición se configura con fragmentos de sus documentales de "memoria histórica" más significativos (**La Flaca Alejandra**, **Calle Santa Fe**) y de sus libros (*Un día de octubre en Santiago*, *Ligne de fuite*, *Santiago-París. El vuelo de la memoria*, coescrito con su madre, Mónica Echeverría), añadiéndose textos propios y ajenos, además de otros documentos y elementos que dan cuenta de una experiencia personal con un eco universal.

apirilak **22** abril > **12:00**

**MAHAI-INGURUA ETA BISITA GIDATUA Carmen Castillo**rekin
**MESA REDONDA Y VISITA GUIADA** con **Carmen Castillo**



Aiete K. E.
apirilak **19** abril – ekainak **11** junio
asteartetik ostiralera / de martes a viernes:
**16:00 – 20:30**
larunbatak / sábados:
**10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00**
igandeak / domingos: **10:00 – 14:00**
astelehenak eta jaiegunak / lunes y festivos:
**itxita / cerrado**

## MALALA IKASLE AUSARTA

Erakusketa honetan, **Malala Yousafzai** Bakearen Nobel saridun eta nesken hezkuntzaren eta emakumeen berdintasunaren aldeko aktibistaren bizitza eta lana ezagutzeko aukera dago.

**Asier Iturralde** ilustratzaile donostiarrak, bere marrazkien bitartez, 2012an jasandako erasotik Erresuma Batuan bizi den pakistandar aktibistaren bizitzako pasarteak kontatzen dizkigu.

## MALALA, UNA ALUMNA VALIENTE

En esta exposición podremos conocer mejor la vida y la labor de **Malala Yousafzai**, Premio Nobel de la Paz y activista de derechos humanos por la educación de la niñas y la igualdad de las mujeres.

El ilustrador donostiarra **Asier Iturralde** mediante sus dibujos nos cuenta diversos episodios de la vida de la activista pakistaní residente en el Reino Unido desde el atentado que sufrió en 2012.

## EKINTZAK / ACTIVIDADES

### Komikia

Komikia erakusketaren edukinetan oinarritzen da eta hiriko kulturgune ezberdinetan zabalduko da.

### Cómic

El cómic está basado en el contenido de la exposición y será distribuido en diferentes puntos culturales de la ciudad.

---

### *Booktrailer*

Marrazki eta testuekin bideo-*booktrailer* bat osatu da, interneten eskuragarri dagoena.

Con los dibujos y textos se ha montado un vídeo-*booktrailer* disponible en internet.

---

### Proiekzioa / Proyección

Aiete K. E.
apirilak **26** abril > **18:30**

### ÉL ME LLAMÓ MALALA

(*He Named Me Malala*, 2015)

Davis Guggenheim. AEB-Arabiar Emirerri Batuak / EEUU-Emiratos Árabes Unidos. 87 min *gaztelania*

---

### Tailerrak Aieteko Haurtxokoan

### Talleres en el Haurtxoko de Aiete

Antolatzaileak / *Organizan*: Donostia Gazteria, Donostia Kultura

apirilak **27** abril > **17:30 – 18:30**

**Malalaren arkatz magikoa**
5-11 urte bitarteko haurrentzat. Izen-ematerik gabe. Edukiera bete arte.

**El lápiz mágico de Malala**
Para niños y niñas entre 5-11 años. Sin inscripción previa hasta completar aforo.

apirilak **29** abril > **17:00 – 18:15**

**Malala ikasle ausarta**
(**Aitziber Alonso** ilustratzailearen eskutik)
Izen-ematea ekitaldia baino 10 egun lehenagotik:
**haurtxokoa_aiete@donostia.eus**
5-11 urte bitarteko haurrak heldu batekin.

**Malala ikasle ausarta**
(con la ilustradora **Aitziber Alonso**)
Inscripción desde 10 días antes del evento:
**haurtxokoa_aiete@donostia.eus**
Dirigido a niños y niñas entre 5-11 años con una persona adulta acompañante.




Victoria Eugenia Antzokia (Okendo plaza)
apirilak **21-28** abril
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes: **17:00 – 20:00**
larunbata eta igandea / sábado y domingo: **11:00 – 14:00 / 17:00 – 20:00**

## ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 19. EKITALDIA

6 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteek egindako marrazki eta muralen erakusketa, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen arloak antolatutako Artearen eta Giza Eskubideen Haur eta Gazteen 19. ediziorako.

Aurten Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena betetzen da. Horregatik, 19. ekitaldi honek aurrera pausu bat eman du proposamen berri batekin. Galdera desberdinak plazaratu ditugu: zein da eskubide garrantzitsuena?, eskubide berriak beharko lirateke? Munduan betetzen al dira?

Horrela, erakusketan banakako eta taldekako 1.700 lan baino gehiagok eman diote erantzuna galdera hauei. Parte hartzea ikastetxe, haurtxoko, harrera-zentro, arte-akademietako eta libreki 2.600 pertsona baino gehiagokoa izan da.

Sari banaketa igandean, **apirilaren 23an**, egingo da Udaletxeko Udalbatza aretoan.

## 19ª EDICIÓN INFANTIL Y JUVENIL DE ARTE Y DERECHOS HUMANOS

Exposición de dibujos y murales realizados por niños, niñas y jóvenes de 6 a 18 años para la 19ª edición Infantil y Juvenil de Arte y Derechos Humanos, organizada por el Área de Derechos Humanos del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

Este año se cumple el 75º aniversario de la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Por eso, esta 19ª edición da un paso adelante con una nueva propuesta. Hemos planteado preguntas diferentes: ¿cuál es el derecho más importante? ¿Serían necesarios nuevos derechos? ¿Se cumplen en el mundo?

Así, en la exposición más de 1.700 trabajos individuales y colectivos han dado respuesta a estas preguntas. La participación ha sido de más de 2.600 personas de centros escolares, *haurtxokos*, centros de acogida, academias de arte y a título particular,

La entrega de premios se realizará el domingo **23 de abril** en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.



Lugaritz K. E.
apirilak **21** abril – maiatzak **5** mayo
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes:
**16:00 – 20:30**
larunbatak, igandeak, zubiak eta jaiegunak
sábados, domingos, puentes y festivos:
**itxita / cerrado**

Antolatzailea / *Organiza*

bidez bide

# ÁNGELES DE LA GUARDA

**Bidez Bide Elkartea**k, Donostiako **Lugaritz Kultur Etxea**rekin koordinatuta, bi sentsibilizazio- jarduera burutuko ditu (dokumentua-solasaldia proiektatzea eta argazki-erreportaje bat erakustea). Gogoeta egingo da honako gai hauei buruz: migrazio transnazionalak, zaintza-kate globalak, Gipuzkoan zaintzan lan egiten duten emakume migratuen errealitate anitzak eta emakume horien jatorriko herrialdeetan zaintzen dituzten familiak.

**Ángeles de la guarda** jatorrizko herrialdean (Lima, Peru) lan hori betetzen duten pertsona eta/edo familia zaintzaileen argazki- eta testigantza-erreportajea da. Argazkiak atera zizkieten amonei eta izebei, Espainiako hainbat lekutan bizi eta lan egiten duten perutarren seme-alaben zaintzaileei.

Era berean, bere lekukotasunak jaso ziren, rol eta eginkizun horiek betetzean aurkitzen dituzten alderdi positiboei eta zailtasunei buruzkoak, bai eta lana hobetzeko gomendioei buruzkoak ere.

**Rosa Villafuerte Salinas**
argazkilariarekin elkarlanean ekoitzi zen.

La **Asociación Bidez Bide**, en coordinación con **Lugaritz K. E.** de San Sebastián, ejecutará dos actividades de sensibilización (proyección del documental-coloquio y exposición de un reportaje fotográfico). Se reflexionará sobre temas referidos a las migraciones transnacionales, cadenas globales de cuidados, realidades multisituadas de las mujeres migradas que trabajan en cuidados en Gipuzkoa y las familias que cuidan en los países de origen de estas mujeres.

**Ángeles de la guarda** es un reportaje fotográfico y testimonial de las personas y/o familias cuidadoras que cumplen esta tarea en el país de origen (Lima, Perú). Se fotografiaron a abuelas y tías, cuidadoras de hijos e hijas de peruanas que habitan y trabajan en diversos lugares del territorio español. Asimismo, se recogieron sus testimonios en relación a los aspectos positivos y las dificultades que encuentran al ejercer este rol y funciones así como, las recomendaciones para mejorar su desempeño.

Producida de manera coordinada con la fotógrafa **Rosa Villafuerte Salinas**.

## PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA / PROYECCIÓN Y COLOQUIO

apirilak **27** abril > **19:00**

**EN TRÁNSITO** (2016) Oskar Tejedor. Espainia / España. 87 min *gaztelania*

**En tránsito** Abya Yalako (Latinoamerika) herrialdeetatik datozen milaka emakumeren errealitateak jorratzen dituen dokumentala da. Emakume horiek bakarrik bidaiatzen dute Europara, beren familien ongizatearen arduradun gisa. Halaber, jatorrizko herrialdean geratzen diren seme-alabekin, beste emakume batzuen zaintzapean, ezartzen duten harreman transnazional horren ondorioez dihardu. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-berbiltzeen eta berrelkartzeen berri eman du.




**En tránsito** es un documental que aborda las realidades de miles de mujeres que proceden de países de Abya Yala (Latinoamérica), que viajan solas a Europa como responsables del bienestar de sus familias. Asimismo, trata sobre las consecuencias de esa relación transnacional que establecen con sus hijos e hijas que se quedan en el país de origen, al cuidado de otras mujeres. También da cuenta de las reagrupaciones y reencuentros familiares en el País Vasco.



Udal Liburutegi Nagusia / Biblioteca Central
(Alderdi Eder)
apirilak **20** abril – maiatzak **6** mayo
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes:
**10:00 – 20:30**
larunbatak / sábados: **10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00**
igandeak / domingos: **itxita / cerrado**

## TETUAN. KANPOALDEA/BARNEALDEA-EGUNA

**Tetuan. Kanpoaldea/Barnealdea-eguna**ren eragilea munduan zehar gertatzen ari den pertsonen mugimenduari lotutako aurpegien eta paisaien bilaketa bat da. Harrera-lekuak, igarotze-lekuak eta pertsonak, haien lagunak eta senideak dira erakusketa honen begiradaren xede.

**Tetuán** ez fikziozko film bat da, baina *road movie* bat da ere. Bertan, begirada pertsonal batetik autoreak atzeman eta aztertzen dituen lekuak igarotze-lekuak eta etxe inprobisatuak dira aldi berean.**Tetuán**ek egiten duen bidaia zinemagilearen aitaren arrastoei jarraitzeko ekindako prozesu bat da, bidaia zinematografiko bati ekiteko aitzakia. Tarteka, begirada behatzaile eta partehartzaile batetik, filmaren protagonisten bidelagun gisa jarduten du Fresnadak, eta haien erregistroa egiten du Danubio ibaiaren ertzetatik, Madrilgo kaleetatik, Saharako basamortutik, Tetuango zokotik eta Euskal Herriko parajeetatik. Jasotzen dituen bat-bateko irudiak organikoak dira eta panpina errusiar baten antzera biltzen dituzte barnean begiradak, paisaiak, herriak, eguneroko bizitzak, mugimendua, argiak eragiten dion lilura eta bazterretako istorioei darien edertasuna. Zinemaren eta argazki sorta honen arteko ezinbesteko loturak, filmaketaren egunkari gisa ez ezik, besteen bizitzako uneak atzemateko ere balio izan dio, gero gure esperientzien parte bihurtzeko.

## TETUÁN. EXTERIOR/INTERIOR-DÍA

El detonante de **Tetuán. Exterior/Interior-día** es una búsqueda de rostros y paisajes ligados al movimiento de las personas en el mundo. Los lugares de acogida, los lugares de tránsito y las personas, sus amigos y familiares, son el objeto de la mirada de esta exposición.

**Tetuán** es una película de no ficción pero es también una *road movie* donde la autora capta y analiza, desde una mirada personal, espacios que son a la vez lugares de tránsito y hogares improvisados. El periplo de **Tetuán** es un devenir que persigue los rastros del padre de la cineasta como excusa para emprender un viaje cinematográfico. Desde una mirada observacional y participativa por momentos, Fresneda registra y acompaña a los protagonistas por las orillas del Danubio, las calles de Madrid, el desierto del Sahara, el zoco de Tetuán o por los parajes de Euskal Herria. Sus instantáneas, orgánicas, cobijan, como si de una muñeca rusa se tratara, miradas, paisajes, poblados, vidas cotidianas, el movimiento, la fascinación por la luz o la belleza que habita en las historias de los márgenes. La unión irremediable entre el cine y esta serie fotográfica funciona, no solo como un diario de rodaje, sino como la captura de momentos de la vida de los otros para que después estos formen parte de nuestras experiencias.

**Saioa Etxebarria** (komisarioa / *comisaria*)

---

**Moderatzaileak / Moderan:** Begoña del Teso, Jon Martija
**Argazkiak / Fotografías:** Floro Azqueta
**Bideoak / Videos:** Zazpi t'erdi, Pixel
**Gaien testuak / Textos temas:**
- **Koordinazioa / Coordinación:** Rosabel Agote
- **Erredakzioa / Redacción:** Rosabel Argote, Jabier Ayesa, Helena González, Mikel Mazkiaran

**Itzulpenak / Traduciones:** Bitez
**Azpitituluak / Subtitulados:** Subtitula'm
**Gida didaktikoak / Guías didácticas:** Ikertze
**Hautaketa-batzordea / Comité de selección:** Josemi Beltrán, Amaia Revuelta, Alfonso López, Carlos J. Plaza, Noemi Cuetos, Marcela Hinojosa
**Komunikazioko bekaduna / Ayudante comunicación:** Julene Sorarrain
**Diseinua / Diseño:** Ytantos

---

Antolatzaileak / *Organizan*

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak Derechos Humanos

**Giza Eskubideen Saila**
**Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea**
**Área de Derechos Humanos**
**Casa de la Paz y los Derechos Humanos**
Aiete Pasealekua 65 - 20009 Donostia-San Sebastián
Tf.: 943 48 19 75

donostia kultura

**Victoria Eugenia Antzokia**
Erregina Erregentea 8, 4ª
20003 Donostia-San Sebastián
Tf.: 943 48 11 57
zinema_gizaeskubideak@donostia.eus


Sofía Otero
Patricia López Arnaiz
Ane Gabarain
Itziar Lazkano
20.000 ESPECIES DE ABEJAS
GANADORA
26 FESTIVAL DE MÁLAGA
SECCIÓN OFICIAL LARGOMETRAJES
BIZNAGA DE ORO
MEJOR ACTRIZ DE REPARTO
PATRICIA LÓPEZ ARNAIZ
PREMIO FEROZ
PUERTA OSCURA
Berlinale
73 Internationale Filmfestspiele Berlin
Competition
GANADORA - OSO DE PLATA
Mejor Interpretación Protagonista
★★★★
"Un delicado y perfecto retrato de la identidad, la infancia y la familia"
Pepa Blanes, CADENA SER
★★★★
Gregorio Belinchón, EL PAÍS
★★★★
Javier Zurro, eldiario.es
UNA PELÍCULA DE ESTIBALIZ URRESOLA SOLAGUREN
21 DE ABRIL EXCLUSIVAMENTE EN CINES

**Antolatzaileak / *Organizan***

**Babesleak / *Patrocinan***

**Parte-hartzaileak / *Participan***

**Laguntzaileak / *Colaboran***

www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

ytantos argazkia / foto: **SISU 360º Jotta Zubiria & Uxue Montero**